

Kalitatezko 1.000 artikulua 12-16 urteko ikasleentzat

BALORAZIO TXOSTENA

2018



Dokumentu honen helburua 2018an zehar Euskal Wikilarien Kultur Elkartearen (EWKE) hezkuntza programaren baitan Eusko Jaurlaritzaren laguntzari esker egindakoak laburbiltzea izango da. Dokumentuaren atal batzuk oso zehatzak izango dira, datu sistema egituratua dagoelako; beste batzuk, ordea, orokorragoak izango dira, euren balio kualitatiboa goraiatu nahi izan dugulako.

EWKEk jasotako diru laguntza 2017-2019 tartean hezkuntza programa bat garatu eta 12-16 urteko ikasleentzat kalitatezko edukiak eskaintzeko helburua zuen. EWKEk erronka nagusi gisa hartu du helburu hori, baina albo-garapenak ere izan ditu, bai gazteagontzat edukiak sortuz, zein ikasle helduagoen beharrak asez. Gainera, unibertsitateekin lanean jartzerakoan, gure erronkaren mugak handitu eta EWKErentzat oso garrantzitsua den beste bat bete dugu: ahalik eta jende gehien edukitzea Wikipediaren inguruan lanean. Azken finean, ekosistema bat sortzea da gure helburua, 2017-2019 erronka zehatza gaindituko duena eta aukera emango diguna hurrengo urteotan lanean jarraitu eta edukiak biderkatzeko.

Hezkuntza-sistemarekin lan egiteak baditu eragin zehatzak planifikazioan. Alde batetik, ikasturteak ez dira urte naturaletan banatzen. 2018aren hasieran egindako guztia 2017-2018 ikasturteari dagokio, eta eragin berezia du 2017aren amaieran egindako lanak. 2018-2019 ikasturtearen hasieran egindakoa urte natural honen amaieran egokitu da, baina lan horietako askok euren fruituak emango ditu 2019. urtean. Are eta gehiago, unibertsitatearen planifikazioa aldatzeak epe ertainak erabiltzea eskatzen du. 2017an egindako lan batzuek jarraitu dute 2018a bitarte eta, baliteke, 2019-2020 ikasturtean ematea euren lehen fruituak, irakaskuntza prozesua bera aldatzea eskatu dutelako.

Egindako beste lan batzuek, bereziki irakasleen formakuntzari dagozkionak, epe asko luzeagoan izango dira eraginkorrak. Irakasleen formazioa ezin da urte bakar batean eman, eta egindako planek erakutsi dute erritmoa azkartzea ere oso zaila dela. Aurrera begirako planetan irakasleen formazioa sartzen jarraitu beharko dugu, baina ulertuta ez dituela berehalako fruituak ematen.

Dokumentu hau kronologikoki baino, helburu zehatzak betetzeko egindako proiektuen inguruan banatu dugu. Has gaitzen.

Hezkuntza instituzioekin elkarlana

Unibertsitateak

Euskal Herriko Unibertsitatea

Euskal Herriko Unibertsitatea izan da gure aliatu nagusia programa hau garatzerako orduan. Beste unibertsitateetan proiektuak egin baditugu ere, gehiago ia osoa EHUUn garatu dugu. 2017ko txostenean aipatzen genuen bilerak abiatu genituela jada fakultate guztiekin, eta bilera horren fruituak 2018ko lehen erdian jaso genituen, ikasleekin lanean hasi ondoren.

Uda hasieran eskaini genuen ikasturtearen balorazioan jada aipatzen genuen gutxienez 800 ikaslerekin lan egiteko aukera izan genuela, eta EHUtik kanpo egindako ekarpen puntual batzuk kenduta, ikasleek 1.000.000 hitz inguru gehitu zizkietela 716 artikuluri.

Datuak onak ziren lehen hasiera horretarako, baina 2018ko bigarren atal honetan beste bazkide batzuk bilatzeko erronka jarri diogu gure buruari, ikastaroak ematen jarraitu dugun bitartean.

2018/2019 ikasturteko lehen lauhilekoan 23 ikastaro eskaini ditugu EHUUn, aurretik egindako 45 ikastaroei gehituta. 68 ikastaro eskaini ditugu, beraz, urte honetan. Bigarren lauhileko honetan luzera begira ezarri nahi genuen lankidetzak abiatu dugu, gainera, Euskararen Arauak eta Erabilera ikastaroarekin. Ikasgai hau fakultate ia gehienetan eskaintzen da, eta aukera paregabea ematen digu gai orokorrei buruzko artikulua mamitsuak jasotzeko, ikasleek ariketa ohiko gisa hartzen dutelako, eta jada laugarren mailan daudelako. Oraindik ikasle batzuek euren artikulua igo ez badituzte ere, 1.500.000 hitz inguru igo dituzte ikasturte honetan, eremu gehienetan.

Ikasturte amaieran ikusi genuen eremu batzuetan ez genuela irakaslerik lortu, eta aurten jarri dugun lehenengo erronka horiengana heldu eta proiektuak abiatzea izan da. Biologia, geologia, historia eta hizkuntzen eremuak izan dira gure helburu nagusia, eta espero dugu 2019an hobekuntza nabarmena ematea hor. Biologia graduko hainbat irakaslerekin lanean hasi gara jada, Letren Fakultatean ere bide berri asko ireki dira, eta ia proiekturik garatzea lortu ez genuen Psikologia Fakultatean aukerak egon daitezkeela ikusi dugu.

Gainera, Txikipediaren sorrerarekin (dagokion atala ikusi), bide berriak ireki zaizkigu Irakasle Eskola guztietan. Zientziaren, gizarte zientzien eta matematikaren didaktikan aurrera pauso handiak emango ditugu ikasturte honetan, eta dena ondo bidean, elkarlan egonkorra izango dugu datorren ikasturtetik aurrera eremu horietan.

Hainbat ikaslerekin praktikak egiteko aukera zabaldu genuen aurten, aukera askeko kredituen truke. Eraitza txarra izan da eremu honetan, ez baitugu irakaslerik lortu artikulua batzuk idaztearen truke kredituak eskuratu nahi zutenak. Bigarren saiakera bat egingo dugu bigarren lauhileko honetan, bereziki Ekonomia eta Historia eremuetan.

Bestetik, hirugarren urtez jarraian egin dugu Gipuzkoako Campusarekin ikastaro orokorra. Ikastaro honetan fakultate ezberdinetako ikasleak biltzen dira, normalki Euskararen Egunaren bueltan, Wikipedian

artikuluak gehitzeko. Aurten ere izan dugu aukera, Informatika, Kimika eta Zuzenbideko hainbat ikaslerekin, Euskaraldiaren bueltan bilduta. Ikastaro hau mantentzeko eskaria egin dute hainbat irakaslek.



Euskaraldiarekin batera egindako ikastaroaren familia-argazkia, EHUren Gipuzkoako Campusean.


Irakasleen formakuntza helburu, FOPU bat abian jarri dugu ere ikasturte honetan. Urtarrilean izango da, baina prozesua 2018an zehar egin dugu. FOPUaren helburua irakasleek ditugun tresnak ezagutu eta praktika bat egitea izango da. Euren ikasleekin martxan jarri beharko dute ikasitakoa, hobekuntza pedagogikoa akreditatu ahal izateko.

Iaz egindako materialak harrera oso ona izan du, ikasle zein irakasleen artean. Irakasleentzat egindako oinarritzko argibideak irakasle eskoletako ikasleen artean ere banatu ditugu, euren etorkizuneko lanerako baliagarriak izan daitezkeela pentsatuz.



2018ko ekainean parte hartu zuten irakasleei inkesta bat helarazi genien, euren ustez gure programak dituen onuren inguruan. Emaitzak hurrengo orrialdean ikus daitezke. Bertan jasotako erantzunekin azalpenei aldaketak egin dizkiogu aurten, bereziki zentratuz iturrien fidagarritasunean, eta modan dagoen "fake news" gaiaren inguruan. Erreferentzia bibliografikoak nola egiten diren azaltzea oso ondo baloratu dute irakasleek, eta eskertu dute kanpoko norbaitek berdinean sakontzea.

Irakasleek emandako erantzunak


Nolakoa izan da eskatutako lana?



Zein da ikasleen maila?



Konpetentzia digitalak



%94,7

Irakasleen gehiengoak errepikatzeko prest dagoela esan digu

Ikastaroak zuzenean ikasgaiei lotuta egiteaz gain, saiatu gara bestelako batzuk ere egiten, aukera askekoak, Asteazken Kulturalak erabilia edo praktika bidez. Emaitzak ez dira onak izan, eta praktika hori albo batera utzi dugu, une batez, emaitza hobek ematen dizkiguten ereduaren alde. Hala ere, eredu hau hobetzea ere etorkizunerako pauso bat izango da, epe luzeko wikilariak lortzeko bideetako bat hori delako.

Irakasleekin egindako kontaktuei esker, hainbat dibulgazio forotan ere izan gara:

Osasungoa Euskalduntzeko Elkartea, Arantzazu

2018ko maiatzaren 17an Arantzazun ospatu zen Osasungoa Euskalduntzeko Elkartearen XXVIII. batzarra, "Komunikazioa-Inkomunikazioa" izenburupean. Medikuntza Fakultatean dugun elkarrekintzari esker, bi aurkezpen egitera gonbidatu gintuzten. Lehenengoa foroan bertan izan zen, Angel Bidaurrezaga irakasleak bere ikasleek egindako lana aurkeztu zuen, eta mediku-gaixo arteko komunikazioaren erakusgarri gisa azaldu zuen. Hauxe da irakasleak egindako aurkezpenaren laburpena:

Euskal Wikipedia elkartearen ekimenez, ikastaro labur batean Medikuntzako lehen mailako euskal ikasleek 60 bat termino sartu dituzte euren jakintza alorrekoak: giharrak, giltzadurak, gaixotasunak...

Ikasleen iritzia ona izan da ikastaroari buruz, euren lana Wikipedian agertzea harrotasunez erakutsi diete lagun eta familiakoei. Wikipediaren helburuarekin bat eginez, prest azaldu dira halako lanak burutzeko datorren ikasturtean. Arazoen artean arratsaldeko ordutegia eta luzera aipatu dute.

Ikasleek landutako artikuluek 16.480 ikustaldi izan dituzte 2018ko martxoaren 21eraino. Apendizitis, artritis, diafragma eta zirrosi izan ziren bisitatuenak.

Hurrengo ikasturtean ikasle berek Giza Anatomia III-ko mintegiko lan bezala zuzenean 14 artikuluzabalagoak egin eta aurkeztu zituzten, 6/7 lantaldetan. Horretarako, Euskal Wikipediatik bidalitako euskaratzeko dauden osasun-arloko 55 gaietatik hautatu zituzten Anatomiako gaiei lotutakoak (torax eta abdomeneko erraiak). Bigarren lauhilekoan Giza Anatomia IV-an zentzumenak eta erdiko nerbio-sistema emango denez, gutxienez beste horrenbeste gai landu eta publikatuko dituzte.

Gure saileko Jon Jatsu Azkuek garatutako ANATORAMAKo 3Dko nerbio-sistemaren irudiak erabiliko dituzte horretarako.



Osasungoa Euskalduntzeko Erakundearen biltzarrean, Arantzazu.

Ondoren, ikastaro bat eskaini zen medikuntzako profesionalentzat, Wikipedian editatzeari buruz. Uste baino parte-hartze txikiagoa egon bazen ere, interesgarria izan zen mediku, erizain eta patologoen iritziak jasotzea Wikipediaren edukiei buruz, fidagarritasunari buruz eta euren inguruan daudenek sarea nola erabiltzen dutenari buruz. Medikuei aurkeztu genien nazioartean egiten diren lanak artikulua ahalik eta hoberen egoteko, eta Euskal Herritik ere ekarpena egin daitekeela ikusi zen, euskarazko medikuntzako artikulua hobetzen zein nazioarteko kooperazioan.

Bilera honetatik eratorrita saiatu ginen beste bi foroetan ere egoten, baina agenda kontuengatik ezinezkoa izan zen: udako ikastaroetan, alde batetik; UEUren osasun ikertzaileen bileran, bestetik.

EEZZ18

Kimika Fakultatean egiten dugun lanari esker, kontaktua lortu genuen **Donostia International Physics Center**rek antolatzen duen *Euskal Esperientziak Zientziaren Zabalkundeak 2018* kongresuan parte hartzeko. Bertan, bi egunez, zientziaren dibulgazioan parte hartzen duten profesional, irakasle eta kazetari ezberdinek lekua zuten esperientziak trukatu, elkarrengandik ikasi eta proiektu berriak ixteko.

Gure aurkezpenean irakaskuntzako langile asko egon ziren, eta hortik eratorri dira urtearen bigarren erdialdean egindako hainbat kontaktu, bereziki institutuetan.

Proiektua azaldu zen bertan, estatistikak eskaini eta Wikipedia editatzeak duen garrantziari buruz hitz egin zen, bai aurkezpenean zein ondoren egondako mahai-inguruan. Mahai-inguruan ere Berritzegunearekin batera elkarlana sendotzeari buruz hitz egin zen.



Aurkezpene EEZZ18n, Donostia.

Kongresu honetatik ateratako beste elkarlan batzuk ere interesgarri izan daitezke etorkizunera begira. Alde batetik, Kimika Fakultatea bera Wikipediarekin konpromisoa handitzeko beharra ikusi zen, eta ikasturte honetan zehar "Kimipedia" izeneko ekimena martxan jartzea aurreikusi dugu, fakultatearen programazioa tarteko. Bestetik, Iruñeko Planetarioarekin astronomiari buruzko jardunaldiak egiteko saiakera egin dugu, bertan izandako kontaktuei esker.

Zientzia Astea

EHUk antolatzen duen Zientzia Astea izan ginen 2017an, eta 2018an zehar bideoak argitaratzen joan gara. Prozesu zaila izan da, bereziki denbora arazoak direla eta. Proiektu zuzendariak hartu du honen ardura, eta berak izan duen tartetan egin ahal izan da. Bertan jasotako materiala ere ez zen pentsatzen zein bezain ona, eta zailtasunak izan ditugu nahi genuen helburua lortzeko: modu simple batean grabatzea hainbat zientzia esperimentu, ikasleentzat lagungarri izango direnak.

Bide hori esploratzeko aukera aztertzen ari gara Irakasle Eskolekin zein Zientzia Fakultatearekin eta Kimika Fakultatearekin, baina prozesua ez da erraza, irakasleak, medioak eta zerrenda zehatzak behar direlako.

Era berean, Zientzia Asteak duen eredia (standak, denbora mugatua eta zarata) ez dira modurik onena bideoak grabatu eta ondoren artikulua batean txertatu daitekeen zerbait egiteko.

| | | | | | | |
|--|--|---|--|--|--|--|
| | | | | | | |
| Efektu triboelektrikoa.webm 56s, 1.920x1.080; 10,98 MB | Euskal Herriko klimatologia.webm 2m 30s, 1.920x1.080; 59,22 MB | Pluviómetroa (gaztelaniaz).webm 2m 27s, 1.920x1.080; 24,71 MB | Zientzia Astea - Giza eboluzioa.webm 2m 32s, 1.920x1.080; 54,72 MB | Zientzia Astea- Arkeologia metodoak.webm 2m 37s, 1.920x1.080, 43,23 MB | Zientzia astea- Iodekaedroa.webm 35s, 1.920x1.080; 5 MB | Zientzia Astea- E makumeak E spainiako gerra zibilean.webm 3m 47s, 1.920x1.080, 69,91 MB |
| | | | | | | |
| Zientzia Astea- Gizon eta emakumeen diferentzia anatomikoak.webm 2m 56s, 1.920x1.080; 44,67 MB | Zientzia Astea- Harizko tresnak.webm 36s, 1.920x1.080, 8,91 MB | Zientzia Astea- Hartzidura alkoholikoa.webm 1m 0s, 1.920x1.080; 9,81 MB | Zientzia Astea- Labar artea.webm 1m 26s, 1.920x1.080, 29,07 MB | Zientzia Astea- Motor homopolarra.webm 59s, 1.920x1.080, 6,13 MB | Zientzia Astea- Panel fotovoltaikoa.webm 1m 44s, 1.920x1.080, 18,52 MB | |

Zientzia Astearen bideoak Wikimedia Commonsen. Bideotako batzuk dagoeneko artikuluetan txertatu dira, baina beste batzuek sarrera zailagoa dute.

Proiektu guztien artean landutako artikuluen zerrenda ikusteko, II. eranskina kontsulta ezazu.

Udako Euskal Unibertsitatea

Udako Euskal Unibertsitatearekin elkarlana abiatu genuen proiektuaren hasieratik. Aurten hiru izan dira landutako eremuak: udako ikastaroa liburuzain eta dokumentalistentzat, WikiNagusi ekimena eta Behategiarekin batera egindako Datasprinta.

Udako ikastaroa

Aurreko urteetan bezala, UEUren udako ikastaroak baliatu genituen Wikimedia proiektuetan egiten diren hainbat lanen berri emateko. Tabakaleran egin genituen, **Hirikilabsen** laguntzarekin, eta hiru eremu landu genituen: Wikidata, Txikipedia eta boten bidezko artikuluen hobekuntza. Tailer teknikoak izan ziren, eta Txikipediak eskaintzen zituen aukerak interesgarri ikusi ziren.



Udako ikastaroaren argazkia, Hirikilabsen.

Wikinagusi

UEUrekin egindako bigarren ekimena, hau ere Udako Ikastaroetan martxan jarri zena, Wikinagusi izan zen. Wikinagusiren helburua sinplea da: erretiroa hartzen duten unibertsitateko irakasleak Wikipedian lanean jartzea, maiztasun batekin bilerak egin eta elkarrekin ikasiz. Irakasle batzuk etorri ziren Baionako **Bernart Etxepare Lizeoan** egindako ikastarora, eta hortik aurrera beste bilera bat egin da Durangoko Azokan.

Irakasle hauek mobilizatzea urte osoko lana izango da, eta konstantzia beharko du. Hala ere, egin dezaketen ekarpen kualitatiboa izugarri handia da. Fisikaren eremuan, adibidez, Joserra Etxebarriarekin egindako lanaren ondorioz artikulua bikainak lortzen ari gara, orain arte lantzea zaila egiten zitzaiguna lortuz.



Wikinagusiaren lehen bilera, Baionan 2018ko ekainean

Behategiaren DataSprinta

DataSprint bat datu batzuk hartu eta beraiekin ahalik eta gauza gehien egitea da. Geroz eta gehiagotan erabiltzen den ikastaro eredua da, datuz inguratutako mundu batean datu horiek erabili, interpretatu ulertu eta argitaratzeko dauden tresna kopurua izugarria delako.


Behategiarekin batera udan DataSprint bat antolatzeko aukera suertatu zen, baina matrikulazioa txikia zela ikusita, azaroan egitea erabaki genuen. DataSprint honetako helburua euskarazko komunikabideen datuak aztertzea zen, ikuspuntu ezberdinegatik: audientziak, irismena, infografiak eta mapagintza. Helburua interdisziplinarra izatea zen, denek ikasten besteek dituzten teknikengandik.

EWKEren eskutik Wikidata eta Wikipedia azaldu ziren, bereziki lehenengoan egoteko beharrezkoak diren eremuak aztertuz eta euskal prentsak dituen gabeziak zeintzuk diren ikusiz. Euskarazko komunikabideen direktorio bat egiteko lehen urratsak ere eman genituen, eta euskarazko publikoa zein den neurtzeko arazoak daudela ondorioztatu, benetan euskaraz zenbatek irakurtzeko gaitasuna duten ez baitago neurtua ez zentsatua.

Erronka horri helduta, mapagintzan ere murgildu ginen, horretarako QGIS teknologia erabilia. Euskarazko komunikabideen irismena mapetan irudiztatzea zen helburua, baina datu gehiagoren beharra argia zen. Hala ere, hainbat mapa egin genituen ikastaro horretatik tiraka, Euskal Herria artikuluan dagoen demografia atala hobetuz.

Demografia [[aldata](#) | [aldata iturburu kodea](#)]

Sakontzeko, irakurri: «[Euskal Herriko demografia](#)»



Euskal Herria artikuluan demografia eta ekonomia atalak berritzeko aukera baliatu genuen ikastaro horretan. Mapagintzan aurrerapausoak eman ziren, datu libreak guztion eskura jarritz.

Mondragon Unibertsitatea

Mondragon Unibertsitatearekin elkarlana hasieratik abiatu genuen, bereziki HUHEZI fakultatean. Fakultate honetan hainbat saiakera egin ditugu proiektuan sartzeko ez ezik euren curriculumean Wikipedia eta Txikipedia bera txertatzeko. Lehen emaitzak ikusten ari gara 2018aren amaieran, irakasleei egindako ikastaroaren ondotik.

Lehen Hezkuntza gradua on-line

Alde batetik Lehen Hezkuntza gradua on-line egiten duten ikasleek proiektu oso bat garatu beharko dute Txikipediaren inguruan, ikasturte osoa hartuko diena: matematikan estatistikak landuko dituzte, IKT eta ingelesa irakasleekin gaiak landuko dituzte, eta didaktika atalean matematikako artikuluen didaktika hobetuko dute, Txikipedian. Gainera, multimedia lan bat egin beharko dute artikulua bat hobetzeko, ingelesez eta euskaraz.

Txikipedia

Txikipediaren lehenengo aurkezpena HUHEZIn egin genuen, bertako irakasle eta ikerlari batzuen aurrean. Ideia bera garatzeko aukerak zeudela ikusi genuen, eta aurrera begirako lanak egiteko aukerak aztertu. Irakasleak Wikipedia hezkuntzarako tresna gisa erabiltzeko aukera ikusi zuten, eta ikastaroa antolatu genuen arlo ezberdinetako irakasleekin.

Txikipediarekin egiten ari garen lanak aurrerapausoak izango ditu 2019. urtean, aurten ikasturtea hasi berritan egindako hainbat kontakturi esker. Luzera begirako aliatu bikaina da HUHEZI, aukera asko ematen dituelako bai unibertsitatean bai eta ikastetxeetan lana egiteko, dituzten praktikei esker.



Txikipediaren aurkezpena, HUHEZIn.

Komunikazio gradua

Aurten egindako bigarren lan interesgarria Aretxabaletan dagoen komunikazio graduarekin izan zen. Bi ikaslek euren Gradu Bukaerako Lana EWKerekin batera egin zuten, bideogintza eta Wikipediaren arteko harremanari buruzko ikerketa batekin. Ikerketaren pausoak unibertsitate bateko prozesuari dagozkionak izan ziren, eta hemen laburpen bat baino ez dugu egingo:

Lehenik eta behin, ikerketa egin zuten bideoak hezkuntzan duen garrantziari buruz, eta gai honi buruz gehiegi ere ez dela ikertu ikusi zuten. Ondoren, bi ikasle talderi hiru bideo erakutsi zizkieten, eta eurek erabaki zuten zein zen formaturik interesgarriena: animazioa. Azkenik, ikasle horiek ere zeren inguruan ikasi nahi zuten adierazi zuten, eta aukerarik bozkatuena feminismoa izan zen. Bi ikasleek animazio bideo bat egin zuten feminismoa zer den azalduz. Hasieran formatua eta irudi askeen inguruan arazoak izan bagenituen ere, uztailean bideoa amaitu zuten, eta ikusgai dago feminismo artikuluan.

Ikerketa 2019an

2019an Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera ikerketa bat abiatuko da hainbat kontzepturen definizioan ikasleek duten pertzepzio eta negoziazioari buruz. Etorkizuneko Gipuzkoarako hamar kontzeptu izango dira eta Wikipedia erabiliko dute definizio horiek egin, eztabaidatu eta hobetzeko. Helburua, hamar kontzeptuak ondo egoteaz gain, ikasleek ezagutzaren dinamika eta negoziazioa zein den ikastea da, eta ikerlariak prozesu hori nola egiten den aztertuko dute. Ikerketa ez da 2018an izango, baina prozedura guztia eta aholkularitza urte honetan egin denez, txostenean sartzea apropos ikusi dugu.

Deustuko Unibertsitatea

Deustuko Unibertsitatean ikastaro bakarra ematea lortu dugu, Humanitate Digitalen eremuan. Ikasleekin bi saio egin genituen, Wikipediak humanitateen esparru honetan duen garrantziari buruz, Wikidatarako sarrera bat eginez eta artikuluen sorrera, garapena eta eztabaida nola ematen den aztertuz. Amaitzeko, ikasleek artikulua bana egin behar izan zuten. Ikasturte honetan errepikatzea aurreikusten dugu.

Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Nafarroako Unibertsitate Publikoan lanean jartzen aukera sortu da, 2019an Txikipedia landuz. Oraindik aztertzen ari garen bidea da, baina aurten egindako lanaren ondorio izango da.



Bigarren Hezkuntza

Gure hasierako helburua definitu genuenean, Unibertsitatean zentratzea erabaki genuen, baina bideak irekitzen saiatu ginen bigarren hezkuntzako ikastetxeekin. Bidea ez da erraza, ez baitago modurik ikastetxe guztietara heltzeko, unibertsitatean egiten daitekeen bezala. Beraz kontaktuen bidez, sare sozialetako iragarkien bidez eta beste bide batzuetatik saiatu gara, banaka irakasleak konbentzitzen. Biderik luzeena da, eta emaitza globalak eskuratu nahi badira, ez da egokiena, baina ditugun baliabideekin egin dezakegun bide bakarra da une honetan. Berritzeguneak eta Hezkuntza Sailak proiektuan ardurarik hartuko balute, asko erraztuko litzateke proiektua hedatzea. Ez da horrela, momentuz. Txosten honetan hiru sare ezberdin aipatuko ditugu, bakoitzarekin egindako lanak ezberdinak direlako:

Eskola publikoak

Eskola publiko batzuetan hasi gara lanean, eta artikuluak ere egin dituzte. Lehen saiakera Bermeoko institutuan egin genuen, baina esperientzia txarra izan zen. Ikasleen jarrerak gainditu gintuen, ohituta geunden unibertsitateko ikastaroak ematen eta ez genuen aurreikusi egon zitezkeen arazoak. Getxoko Aixerroetan egin genuen hurrengo ikastaroa, informatikako ikasleekin. Orokorrean esperientzia ona izan zen, eta ikasleek ikusi zuten nola landu gaiak eta zer zen posible eta zer oso zaila. Aurreko esperientziatik ikasitakotik ikusi genuen posible zela ikasleekin beste mota bateko ikastaroak egitea, denbora luzeagoekin, hiru astez bertara joanez eta informazioa dosifikatuz.

Sestaon ere izan ginen, Saturnino de la Peñako ikasleekin, baina kanpo ikastaro gisa hartu zuten eta ez zituen izan aurretik pentsatzen genituen emaitzak. Antiguako Luberri institutuan Luberripedia proiektua garatu dugu ere, auzoko informazioa hobetuz. Esperientzia oso positiboa izan da honakoa.

Ikasturte honetan Gasteizko Mendebaldea BHIIn izan gara, irakasleen formazioa egiten. Irakasleen esku geratuko da euren ikasleekin lanketa egitea, eta badirudi batzuek interes berezia dutela gaiak lantzen. Antzeko formazioa ere abiatuko dugu laster Elizondoko LHIREkin, irakasle guztiak formatuz. Amaitzeko, irakasleen formazioaren ondorioz hiru ikastaro egin ditugu Donostiako Zubiri-Manteo ikastetxean, emaitza interesgarriekin.

Euskal Herriko ikastolak

Ikastolekin egindako lana konplexua izan da. Alde batetik, unitate didaktiko bat enkargatu genien 2018an zehar egin eta argitaratzeko. Berez eginda dago, eta aurkeztea bakarrik falta da, baina ez dugu erantzunik jaso aurkezpen horren datari buruz. Gure asmoa zen ikasturte honetan zehar ahalik eta ikastola gehienetara joatea unitatearekin, irakasleak formatuz eta hurrengo urtetik aurrera autonomoak izan zitezen. Berandutze honek planak aldatzea ekarriko du, eta 2019an ere zaila izango da ikastola guztiak sartzeari proiektu honetan. Proiektua berbideratzeko lanean ari gara. Bestetik, hainbat ikastola kontaktuan jarri dira gurekin, egin daitezkeen lanekin interesatuta. Txantxiku ikastola, Pasaia lizeoa, Lizarrako ikastola edo Bernart Etxepare lizeoetan proiektua abiatuko ditugu laster.

Kristau eskolak

Kristau eskolekin ere lan egiteko aukera izan dugu, irakasle batzuekin kontaktuak eginez. Tolosako Herrikide institutuarekin eta Irungo LaSallerekin egin ditugu jada lehen kontaktuak eta ikastaroak.

Beste instituzioekin elkarlana

Berritzegunea

Nahi baino elkarlan txikiagoa izan dugu Berritzeguneekin, bai Berritzegune Nagusiarekin baita herri ezberdinetan daudenekin ere. Gure asmoa urte honetarako Berritzeguneen bidez ikastaroak eskaintzea zen, eta eurak ere esku artean dugun proiektuaren garrantzia ulertzea. Baina zailtasunak baino ez ditugu izan.

Urte hasieran saio bat egin genuen Berritzegune Nagusian, proiektua nolakoa den azaldu eta euren aldetik proposamenak entzuteko asmoz. Bigarren aurkezpen bat egitekotan geratu ginen, baina ez zen egin. Ondoren, ekainean ikastaro bat antolatu zen hainbat irakaslerentzat, Txikipedia zein Wikipedia azaltzeko, eta hortik proposatu zen berritzegune ezberdinetan ikastaro bera egitea. Gaurdaino bakarrak erantzun du, eta besteen berririk ez dugu.

Irakasle horiekin egindako ikastaroetatik ere ez da atera proiektu zehatzik. Irakasleek ikastaroa egiten dute, baina ondoren ez dago eurenikasleekin lantzeko proposamenik. Irakasleen formakuntzari garrantzirik kendu gabe, proiektua bera indartzeko aukerak galtzen ari gara, eta esfortzu handia suposatzen du gure aldetik horrelako ikastaro bat antolatu eta jarraipena egiten saiatzeak.

Berritzeguneak paper garrantzitsua izan dezake proiektu honen luzera begirako emaitzetan, baina horretarako beste maila bateko ekimenak eta konpromisoak beharko dira.

Etxepare Institutua

Etxepare Institutuarekin elkarlana abiatu dugu, munduan zehar dauden irakasle irakurleekin Wikipedian euskarazko zein euskal kulturari buruzko artikuluak lantzeko. Momentuz, ikastaro bakarra abiatu dugu, **Leipzigeko Unibertsitatean**, Wikimedia Alemaniaren elkarlanarekin.

Udan irakurle guztiekin bilera bat egin genuen, gure proiektua aurkeztuz eta elkarlana nola egin zitekeen eztabaidatuz. Bilera horretan bertan Euskaltzaindia zegoen, eta pentsatu genuen aukera polita izan zitekeela 100. urteurrena baliatzea euskararen eta euskal kulturaren inguruko artikulu lantzeko. Ikasturte berriarekin aukera hori berriro hartu dugu eta 2019an zehar egitea aurreikusten dugu.

Iruñeko Planetarioa

Lehen aipatu dugun bezala, aukera suertatu zen EEZZ18ren baitan Iruñeko Planetarioarekin, eta zehatzago euren STEM programarekin, astronomia eta euskarari buruzko proiektu bat egiteko. 2018/2019 ikasturtean 5 saio egitea zen helburua, gai ezberdinak jorratuz. Lehenengo biak gaizki atera dira, baina hirugarrena denbora gehiagorekin antolatu nahi dugu, eta agian eguna aldatu. Elkarlan honen helburua asko kontsultatzen diren eta unibertsitateekin lantzea ezinezko diren astronomiako gaiak hobetzea izango da, baita emakume astronomoei buruzko artikuluak egitea ere.



Donostia Kultura

EWKEk Donostia Kulturarekin egiten duen lana ez da proiektu honen barnean egiten, bere bide propioak baititu. Hala ere, literaturaren eremuan egindako ekarpena aipatzea garrantzitsua da. Liburuzainek definitu dute literatura unibertsalaren eremuan zein artikulu landu beharko genituzkeen, eta ostiralero bildu dira egile horien artikuluak hobetzeko.

Artikuluek izan duten %42ko hobekuntzaz gain (dagokion atalean zehaztapen gehiago daude honi buruz), liburutegietan idazle horien lanak erakutsi dituzte abenduan, propio eurek egindako artikuluekin osatutako liburu batez gain. Hiru entitate ezberdinen kolaborazio adibide bikaina da, orain beste liburutegi batzuetara zabaltzen saiatzen ari garena.

Euskarabidea

Nafarroako Euskarabidearekin ere harreman interesgarria ireki dugu aurten. Ikasturte amaieran "Sarean euskaraz" izeneko ekimena egiteko esleipena egin zuen eta Eragin enpresak irabazi zuen lehiaketa. Enpresa hau kontaktuan jarri zen gurekin lehenago, esleipenean Wikipediari buruzko ikastaroak egotea eskatzen zela esanda. Guk ez genuen albisterik horren inguruan, baina uste dugu Eragin izan zela aurkezpenean proiektu hori nola garatu adierazi zuen bakarra.

Ekainean bilera bat egin zen Euskarabidea, Nafarroako Hezkuntza Saila, EWKE eta Eraginen artean, hezkuntza programa zertan den azaltzeko, eta interesa zutela esan zuten, horrelako zerbait Nafarroan garatzeko aukerak aztertzeke daudelarik oraindik.



Iruñeko Baluartan egindako aurkezpena

Irailan hainbat ikastetxek proiektuan parte hartzeko deia erantzun zioten eta urrian zehar EWKEk pertsona bat jarri du ikastaro horiek mateko. Berez dirulaguntza aparte landu bada ere, proiektu honen baitan landutako materialak eta teknikak erabili dira ikastaro horiek ere emateko. Horregatik uste dugu beharrezkoa dela hemen ere aipatzea Nafarroan egindako proiektu hau.

Amaitzeko, azaroaren hasieran bi eguneko jardunaldia egin zen Iruñeko Baluarte Jauregian, eta guztira 900 ikaslerekin egoteko aukera izan genuen. Askok Wikipedia bandalitzatzeko erabili bazuten ere, egon zen interesa izan zuena eta irakasle batzuek gogotsu hartu dute horrelako proiektu bat.

Elkarlan honetatik aurrera begira fruitu berriak sor daitezke. Alde batetik, Nafarroako Gobernuak berak interesarekin hartu du Euskal Autonomia Erkidegoan egiten ari garena. Nafarroako Unibertsitate Publikoan dagoen euskara eskaintzarekin zaila izango litzateke antzeko proiektu bat garatzea, baina institutuak sartuz gero bide polita egin dezakegu.

Bestetik, Eragin enpresak balorazio positiboa egin du, eta formatu hori beste instituzio batzuetan aurkeztea aztertzen ari da. Hala izatekotan, EWKErekin elkarlana ziurtatu beharko genuke.


Arabako Foru Aldundia

Aurten Arabako Foru Aldundiarekin irakasleen formaziorako plan bat abiatu dugu, Gasteizko Berritzegunearen eta IKTeroen laguntzarekin. Hasierako helburua ikastetxe guztietara heldu eta lehiaketa bat egitea bazen ere, baliabide nahikorik ez zegoela ikusi genuen, eta hainbat saio egingo ditugu irakasleekin. Txikipedia zein Wikipedia interesgarri ikusi dute, eta orain arte ikasleekin lanean ibili diren irakasle batzuk ere gerturatu dira, egiten zutena hobetu eta gure gomendioak jasotzeko.



Garabide

Garabide Elkartea gobernuz kanpoko erakunde bat da, lankidetzaren alorrean munduko hizkuntza gutxituen biziberritze prozesuak bultzatzen dituena, euskararen esperientziatik abiatuta. Aurten bi plan egin ditugu eurekin, euskarazko Wikipedian ikasitakoa munduko beste hizkuntza batzuekin partekatu eta Wikipedia berriak sortzen laguntzeko asmoarekin.



Lehenengoa Kolonbiako Nasa Yuwe hizkuntzako kideekin izan zen. Garabideko kideak joan ziren hara udan, eta guk formazioa eman genien kide horiei Wikipedia itzuli eta martxan jartzeko prozedurari buruz. Wikimedia Colombiarekin ere harremanetan jarri ginen, Berlinen egindako bilera batean, proiektuan laguntza izan zezaten. Bertako egoera eta aukerak ikusita, epe luzeagorako uztea erabaki zuten.

Bigarren esperientzia Garabidek antolatzen duen Aditu programaren baitan izan zen. Programa honetan mundu osoko hizkuntza aktibistak datoz Euskal Herrira, hemengo esperientzietatik ikasteko. Wikipediari buruzko ikastaroa eskaini genien, eta baliteke kolaborazioa piztea Kaktxikel hizkuntzarekin hurrengo urtean zehar. Hizkuntza askok Txikipedia proiektu interesgarri gisa ikusi zuten.

Beste saiakera batzuk

Beste saiakera batzuk egin ditugu aurten edukiak eskuratu edo elkarlanak abiatzeko. Huts egin dute, arrazoi ezberdinak direla eta. Euskadiko Filmoteka, Donostiako Zinemaldia edo Bertsozale Elkartea izan dira horietako batzuk.

Musikenerekin ere kolaborazio bat hasteko aukera ikusi genuen, baina momentuz ez du aurrera egin, eta harremana berriro abiatzea eskatuko du.

Aurrera begirako planetan jarraitzen dute, baina uste baino zailagoa izango da eurekin kolaborazioak egitea.


Edukien erosketa eta kanpo elkarlanak

Proiektu honen barruan edukiak erostea edo kanpo zerbitzu batzuk enkargatzea aurreikusten zen. Hemen azaltzen diren asko 2017ko aurrekontuan itxi ziren, baina 2018an zehar garatu dira.

Berria

Berriarekin hiru eduki erostea adostu genuen: Espainiako Gerra Zibilari buruzko "Oroiteria" webguneko edukia, "GAL 30 urte" webgunea eta egunero egiten dituzten infografiak igotzea. Azkenean, Berriak bere eduki guztia jarri du lizentzia librean, Wikipidiarekin bateragarri, iraganeko zein etorkizuneko eduki guztia berrerabilgarri egiten. Oso harrera ona izan du ekimen honek, eta Wikimedia Fundazioaren blogean behin baino gehiagotan aipatu dute aurten. Ez hori bakarrik, beste hizkuntza batzuetan lan egiten duten wikilariak ere adibide eta praktika on gisa jarri dute Berriarekin lortutakoa.

Webgunearen edukian garrantzi berezia izan du infografiak libre uzteak. 4.600 infografia baino gehiago igo dituzte, eta horietako 110 erabiltzen ari gara Wikipedia ezberdinetan. Txernobili buruz egindakoa errusierara eta ingelesera itzulita dago, eta Wikipedia horietan erabiltzen ari dira. Guztira, Berriak egindako infografiak 254.000 ikustaldi izan dituzte, baina azaroan daturik egon ezenez, baliteke 300.000 ikustaldi inguru izatea.



Gutxinaka infografiak edukian txertatzen joan dira wikilariak, batez ere euskaraz. Horrek gorakada nabarmena ekarri du ikustaldi kopuruan. Denborarekin, infografia gehiago txertatzen goazen heinean, ikustaldi kopuruak ere gora egingo du.


Susa

Orain urtebete, EWKEn garatzen ari garen hezkuntza programaren baitan, Susa argitaletxearekin lanean hasi ginen. Helburua: euskal literaturari buruzko gaiak hobetzeko bideak elkarrekin egitea. Hiru lan zehatz egin dira: lehenik eta behin haur eta gazte literaturari buruzko gaitegi bat osatzea, unibertsitateekin landu ahal izateko; bigarrena, helduen literaturaren gertakari garrantzitsuenak biltzen dituen beste bat, etorkizunean Wikiproiektu bat abiatu ahal izateko; hirugarrena, datuen trukaketa izan da. Datu horiekin Wikidata elikatuz Wikipedia eta bestelako proiektuak haziko dira, baina Armiamak ere sarrera azkarra izango du egile horien inguruko artikulu, erreferentzia eta bestelako edukietara. Gakoa bi database ezberdin bateratzea baino ez zen.

Teknikoki, ez da lan erraza. Alde batetik bi databasetan parametro berdinak izan behar ditugulako, eta datu horiek zeintzuk diren ondo aztertu behar delako. Wikidatan Armiamako datuentzat propietate bat eskatu genuen, baita lortu ere. Honela, Wikipediako edozein artikulutan, Armiamarako lotura automatikoki agertuko da; beste aldean, Armiamak datu hau erabil dezake bere aplikazioak hobetzeko. Behin datuak

kalkulu orri batean lortuta, OpenRefine tresna oso indartsuak ditu datuak ordenatzeko, eta zerrenda luzeetarako tresna bikainak eskaintzen ditu. Azkenik, QuickStatements bezalako tresna bat erabilia igo ditugu idazleak lehenengo, liburuak ondoren, argitaletxeak azkenik.

Lan horri esker, euskarazko literaturaren historia aztertzeke modu berriak ditugu, grafiko ugari eskainiz edozein bilaketarako. Adibidez, bilatu dezakegu euskaraz egin diren obra guztiak, urtez urte, egilearen jaiotza probintziaren arabera:



Baina ez da hori egindako lan bakarra izan. Gaitegi zehatza eskatu genien, literatura hobeto landu ahal izateko. Bi dokumentu eman zizkiguten, bata Haur eta Gazte Literaturari buruzkoa, helduen literaturari buruzkoa bestea. Lehenengoa Irakasle Eskolekin eta Donostia Kulturaren bidez Donostiako Haur eta Gazte Literatura liburutegiarekin partekatu dugu, berarekin egin daitekeena aztertzeke. Bigarrenarekin Literatura eremuko artikulu zerrenda berria egingo dugu 2019an zehar, edukia guztiz irauliz. Hurrengo urteko estatistiketan eragin handia izango du, eta baliteke urte batzuetarako lana izatea eduki guzti hori sortu, antolatu eta fintzea.

Susarekin beste bide batzuk ere ireki dira, bereziki klasikoen gordailuari dagokiona eta euskarara ekarriak izan diren obren databasearekin. Hurrengo urtean landu daitezkeen gaiak dira, aurrekontuak horretarako ematen badu.

Elhuyar

Elhuyarrekin hiru lan abiatu genituen iaz, 2018an zehar garatu direnak. Lehenengo eta behin Zientzia eta Teknologia Hiztegien dauden definizioak Wikidatara igotzeko lana; Teknopolisen egiten diren bideoak askatzekoa, ondoren; eta Wikispeech teknologian euskara prest egoteko lanketa guztia, azkenik. Aurten ere beste proposamen bat itxi dugu, 2019an zehar garatuko dena: ikasleen hiztegiaren eduki osoa Wikidatako Lexema gisa igotzea, euskararen presentzia plataforma horretan nagusi eginez.

Zientzia eta Teknologia Hiztegien 22.000 termino baino gehiago daude definituta. Definizio horiek oso interesgarriak dira Wikidatako itemen deskribapena egiteko. Wikidata munduko datu base libre eta publikorik handiena da, 53.600.000 item baino gehiagorekin. Item horiek erabiltzen dituzte beste zerbitzu askok gauzak "zer diren" erabaki eta esateko. Honela, Googlek eta mugikorreko aplikazio eta bilatzaile

askok Wikidatako deskribapena erabiltzen dute euren deskribapen nagusi gisa. Milaka objektu definiturik ditugu jada, baina ZTHko 6.600 deskribapen igotzerakoan bereziki mugikorreko bilaketak erraztu, hobetu eta euskaratu ditugu zientzia eta teknologiako eremu askotan. Oraindik ere beste 18.000 deskribapen inguru falta dira igotzeko, baina horiek banaka egin behar dira, gerta daitekeelako ez izatea zehazki deskribatu nahi den gauza bera. Urte honetan zehar hori ixtea izango da lanetako bat.

Teknopoliseko bideoak igotzea uste baino konplexuagoa izan da. Wikimedia Commonsen libreak diren edukiak baino ezin dira igo, eta Teknopolisen lizentzia bikoitza da: alde batetik Elhuyar Fundazioak du edukien gaineko eskumena eta, bestetik, EiTBk du irudi horien inguruko eskubidea. Elhuyarrek, beraz, EiTB konbentzitu behar izan du eduki horiek askatzearen beharraz. Azkenean, 52 bideo askatzea lortu da, lizentzia guztia librea zutela ziurtatu dugun bideoak. EiTBk libre utzitako lehen bideoak dira, bere historia osoan. Zientziari buruzko animazioak dira, bereziki publiko gazte bati begira egindakoak. Dagoeneko artikuluetan txertatuta daude, eta 80.000 ikustaldi baino gehiago izan dituzte eduki horiek txertatu zirenetik. Elhuyar Fundazioarekin batera egindako balorazioan ikusi genuen edukiak askatzeko lanak zailtasun bereziak dituela, bereziki irudi guztiak libre izan behar direlako, baita musika edo edozein audio ere. EiTBk lizentzia libreak erabiltzea ere aurrerapauso itzela izango litzateke euskarazko edukien presentzian Interneten.

| | | | | | | |
|---|---|---|--|--|---|---|
| | | | | | | |
| 'Cofradia de Atzara' margolanaren zaharberritzea.webm 8m 59s, 1.049x576; 223,33 MB | Almidoitik zelulosara.webm 1m 58s, 1.920x1.080; 41,14 MB | Animalia bidaiariak.webm 2m 4s, 1.920x1.080; 59,27 MB | Azalaren kolorea, eboluzioaren margoa.webm 2m 8s, 1.920x1.080; 34,36 MB | Begiaren migrazioa.webm 1m 55s, 1.920x1.080; 57,84 MB | Berna ez da beti hobia.webm 2m 25s, 1.920x1.080; 54,15 MB | Bidaiak, pertsonen ezaugarri.webm 2m 4s, 1.920x1.080; 42,23 MB |
| | | | | | | |
| Bihotza, odolaren motorra.webm 2m 4s, 1.920x1.080; 39,81 MB | Bilboko Salbeko zubia.webm 1m 27s, 1.049x576; 35,43 MB | Bizitza berria PETarentzat.webm 10m 2s, 1.920x1.080; 269,47 MB | Bizkaiko zubia.webm 2m 48s, 1.049x576; 79,07 MB | CRISPR-Cas9, geneak mozteko guraizeak.webm 2m 8s, 1.920x1.080; 54,91 MB | Dagerrotipotik pixelera.webm 2m 19s, 1.920x1.080; 42,02 MB | Denboran atzera.webm 1m 35s, 1.920x1.080; 35,71 MB |
| | | | | | | |
| Deustuko zubia.webm 49s, 1.049x576; 21,49 MB | Eskalak.webm 2m 5s, 1.920x1.080; 41,65 MB | Euri artifiziala.webm 2m 6s, 1.920x1.080; 53,2 MB | Euskalduna zubia.webm 2m 16s, 1.049x576; 56,56 MB | Gabonetako digestioa.webm 2m 2s, 1.920x1.080; | Garuna, erosle.webm 2m 3s, 1.920x1.080; 36,1 MB | Gorputzeko balbulak.webm 2m 4s, 1.920x1.080; |

Azkenik, Wikispeech garatu dugu aurten. Oraindik ez dago publikoki ikusgarri, Wikimedia Suediaren esku dagoelako igotzea eta, badirudielako, ez dutela medio nahikorik hau azkar egiteko. Hala ere, behin igota, euskarazkoa ere erabilgarri egongo da. Aurten egindako lanen artean dago AhoTTS teknologia MaryTTS teknologiarekin bateragarri egitea, laburdurak egoki interpretatzeko softwarea garatzea (adibidez, XXI. mendea ez irakurtzea X-X-I-puntu-mendea, baizik eta hogeitabatgarren mendea) eta testua gelditu edo paragrafoz saltatzeko aukera gehitzea. Wikispeech eskuragarri dagoenean, euskara izango da lehen hizkuntzetako bat, gure inguruan ditugun hizkuntza nagusiak baino askoz lehenago.

Aurten 2019an garatzeko proiektu bat ere garatu dugu. Wikidata izandako berrikuntza nagusia 2018an lexemak gehitzeko aukera izan da. Lexemak hitzak dira, bere esanahi, aldaera eta beste hizkuntzetako ordainekin lotu ahal direnak. Euskaraz lexemak igotzea lan zaila da, izan ere 46 forma ditu hitz bakoitzak, singularra eta plurala baino ez duten hizkuntzekin alderatuta. Une honetan oso lexema gutxi ditugu euskaraz, eta frantsesa da aurre hartzen ari dena esparru honetan. Elhuyarrekin gaia aztertuta, euren produktua den Ikasleen Hiztegia igo eta lotzea adostu dugu. Bertan daude ikasleek gehien erabiltzen dituzten hitzak, eta bakoitzaren forma guztiak automatikoki igotzeko aukera egongo litzateke, esanahi eta ordainekin batera. Honela, hiztegia erosten duten ikasleek (orokortua da) sarbidea izango lukete, Internet bidez, beste hizkuntzetako ordainei, Wikipediako edukiei eta, egotekotan, beste database, hiztegi eta webgune batzuetan dagoen edukiari. Wikimedia Commons eta Elhuyar hiztegia lotzeko aukera ere egongo litzateke, hiztegia guztiz multimedia bilakaturik. Gure aldetik, hitz guzti horiek izateak, euskararen presentzia areagotzeko balioko du, itzultzaile automatikoei sarbide hobea izango dute euskararen konplexutasunera, tresna berriak egin ahal izango dira informazio horrekin eta hiztegi bilaketa arinagoa izango da, Wikihiztegia proiektua berpiztuz. Urte osorako lana izan daiteke honakoa.


Talaios


Talaios Kooperatibarekin artikuluen bisualizazio tresna berritzaile bat egitea adostu genuen. Helburua artikuluko batek dituen loturak aztertu, eta bisualki erakustea zen, hezkuntza programan dauden gaiak erakutsita. Honela, artikuluko garrantzitsuenak zeintzuk diren ikusi ahal izango genuke, bereziki gure programatik at daudenak identifikaturik eta hobetuz. Epe laburrean baino, epe luzera Wikipediaren kalitatea hobetzeko tresna izango litzateke, proiektu hau berritzekotan abiatzeko material nahikoa izateko aukera bat.

Tresnaren garapenak denbora behar izan du, zehazki zer zen bisualizatu nahi genuena erabaki behar genuelako. Loturak ziren, baina lotura batzuk ez zuten garrantzirik (datak eta urteak, bereziki), eta beste batzuk albo batera utzi behar ziren, ez zirelako artikuluen edukiaren parte, baizik eta kategorizazioaren ondorio (ez da arazo tekniko bat, baina emaitzak desitxuratzen zituen, nabarmen).

Artikuluaren luzera eta artikuluko horren kategoria zehaztea ere garrantzitsua zela uste genuen, eta denboran zehar bisualizazioa aldatzeko aukera egotea. Zerbitzarietan horrek suposatzen duen karga aztertuta, Talaiosek soluzio teknikoa eman zuten.

Amaierako produktua Zeres deitzen da, Erromatar uztaren jainkosa eta aurkitutako lehen asteroidea. Sistemaren bisualizazioak asteroideekin duen itxurak eta etorkizuneko uzta jasotzearen ideiarekin lotu nahi izan dugu. Hurrengo orrialdean agertzen da bisualizazio baten adibidez. <http://zeres.wikimedia.eus> helbidean bisita daiteke emaitzak ikusteko.

































Ahotsak

Ahotsak proiektua altxor bat da, zaindu beharrekoa. Milaka bideo eta audio izateaz gain, herri memoriaren erakusgarri bikaina da, jende xehearen bizimodua zein den gogoratzeko proiektu bikaina. 2018an eurekin jarri gara kontaktuan, elkarlan bat bilatzeko asmoz. Ikusi genuen aukera erraz eta oso baliagarria zela herriz herri grabatu dituzten bideo horiekin herri bakoitzeko hizkera eta euskararen berezitasunen inguruko bideoak jasotzea. 300 herritako bideoak dituzte, euskararen berezitasunei buruzko xehetasunak izateko aukera bikaina.

Ahotsakek urte honetan zehar 300 bideo igo ditu Wikimedia Commonsera, eta dagokion artikuluan igo dituzte bideo horiek, azalpenekin batera. Proiektua doitzen joan da denborarekin, wikimedia komunitateak hala eskatuta: bideoen deskribapenetan hobekuntzak, artikuluetan txertatzeko modu gokia...

Une honetan herri bakoitzeko euskara entzuteko aukera bikaina dago Euskarazko Wikipedian, eta mundu osoan zehar, proiektu honi esker. Fitxategi hauek hilabeteetan 30.000 ikustalditik gora dituzte, nahiz eta ezin dugun jakin bideoa "benetan" ikusi duten.

MB

| | | | | | | |
|---|---|---|---|--|--|--|
|  |  |  |  |  |  |  |
| Andoaingo ahotsak.webm 29m 32s, 1.920×1.080; 526,67 MB | Anoetako Manuel Odrizola.webm 1m 20s, 853×480; 6,33 MB | Antzuolako Purita Zabalo.webm 2m 42s, 683×512; 10,99 MB | Anueko Pedro Senosiain.webm 1m 53s, 853×480; 5,04 MB | Arakaldoko Milagros Ginea.webm 47s, 1.920×1.080; 9,37 MB | Arakilgo Inazio Etxarren.webm 1m 12s, 853×480; 3,19 MB | Aramaioko Ahotsak.webm 10m 4s, 1.280×720; 130,29 MB |
|  |  |  |  |  |  |  |
| Aramaioko Julian Astola.webm 3m 4s, 853×480; 9,3 MB | Aramako Eugenio Iza.webm 44s, 853×480; 3,01 MB | Aranoko Roke Ansa.webm 3m 43s, 853×480; 12,5 MB | Arantzako Joakin Berau.webm 3m 56s, 853×480; 17,23 MB | Arantzazuko Matilde Artetxe eta Maria Lourdes Etxebarria.webm 2m 59s, 1.920×1.080; 45,51 MB | Arbizuko Manuel Razkin.webm 1m 58s, 1.024×768; 6,99 MB | Arbonako Pierre Etxeleku.webm 1m 13s, 1.920×1.080; 38,45 MB |
|  |  |  |  |  |  |  |
| Areatzako Maribel Gorostizagoiza.webm 58s, 1.920×1.080, 10,08 MB | Aretxabaletako Miren Zuazabedia.webm 2m 50s, 910×512, 15,28 MB | Arhantsusiko Alexandre Etcheberry.webm 1m 42s, 1.648×928; 20,24 MB | Ariako Santiago Nuin.webm 42s, 910×512, 2,42 MB | Aritzuko Maxima Urteaga.webm 34s, 1.648×928, 2,43 MB | Aroztegiko Rosa Mari eta Jose Antonio Elizondo.webm 1m 5s, 1.648×928; 7,29 MB | Arrakundiagako Mari Etxebarria.webm 1m 35s, 853×480, 7,58 MB |
|  |  |  |  |  |  |  |
| Arrasateko ahotsak.webm 2m 20s, 683×512; 13,22 MB | Arratzuko Juanita Bilbao.webm 1m 7s, 853×480; 5,97 MB | Arrietako Luis Asla.webm 2m 20s, 853×480; 6,86 MB | Arrigorriagako Egunenio Sagastizabal.webm 2m 47s, 853×480; 11,2 MB | Artazuko Lur Albizu.webm 3m 19s, 640×360; 13,36 MB | Arteako Luziano Artetxe.webm 1m 0s, 1.920×1.080; 7,47 MB | Arue Ithorrotze Olhaibiko Philippe Dulau.webm 1m 56s, 853×480; 6,23 MB |

Wikilariak lanean

Orain arte aipatutako proiektu eta ekimen guzti hauek wikilariak egiten duten lanaren osagarri dira. Wikilariak, borondatez, artikuluak landu, zuzendu, garatu eta irudiz hornitzen dituzte. EWKEren lana da, eta laguntza honekin egiten ari gara, edukiak hobetzeko tresnak eskaintzea. Wikilariak milaka artikulua sortu dituzte aurten, eta euskarazko Wikipediak jarraitzen du 31. Wikipedia izaten artikulua kopuruari dagokionez, turkieraren atzetik. Wikilarien lana bideratzeko egindako lanetako batzuk aipatuko ditugu ondoren, bereziki lehiaketen eremuan egindakoa, baina ez bakarrik.

Lehiaketak

Hilabetero lehiaketa bat egitea erabaki genuen 2017aren amaieran, horretarako partida txiki bat erabiliz. Sariak erostera eta promozio bideoak egitera bideratu dugu partida hori, eta emaitzak ikusgarriak izan dira. Alde batetik, bideoak eurek aukera eman dutelako komunikabideetan zein sare sozialetan egoteko, gure lana ezagutaraziz. Beste aldetik, wikilariak erronka interesgarri gisa hartu dutelako hilabetero gai baten inguruko artikulua lantzea eta hobetzea.

Lehiaketek hobeto funtzionatu dute sari bat baino gehiago egon denean (lehen sari bakarra dagoenean bizpahiru pertsonak baino ez dute benetako lehiaketa egiten aukera ikusten) eta saria liburuak baino aisialdiarekin loturik egon denean. Horregatik, 2019rako sariak hartzerakoan irizpide horiekin ere egin dugu: beti egotea gutxienez bi sari, bata bestea baino potoloagoa, eta aisialdi eskaintza gehiago egotea sarien artean.

2018ko helburuen artean euskarazko Wikipedian hobeto lantzea merezi zuten eremuak jarri genituen. Horietako batzuekin asmatu dugu, bereziki astronomiari lotutako gaiekin (ikus Kultura zientifikoari dagokion eremuan egondako hobekuntza) edo martxoan egin genuen emakumeen biografiei buruzko gaiarekin, zeinetan ikastetxe asko hurbildu ziren guregana. Beste batzuekin zailagoa izan da, eta lehiaketa apalagoa izan da. 2019an Hezkuntza Programako gaietan zentratuko gara, batik-bat, horiek hobetzea baita gure erronkarik handiena.

Estatistika orokorrak ematen baditugu, ikusiko dugu lehiaketen bidez egondako aurrerapena erraldoia izan dela, esfortzu oso gutxiarekin, gainera. Hala ere, ezin dugu dena karta honetan jokatu: wikilariak ez dute dena lehiaketen bidez egiten, eta lehiaketek iraungitze epea dute ere. Wikilariak 7.058 kylobite (hau da, 7.058.000 karaktere) gehitu dizkiote euskarazko Wikipediari lehiaketen bidez, EHUko ikasle guztiak gehitu dutena baino pixka bat gutxiago. 407.088 hitz gehitu dituzte urte honetan zehar eta 1.040 artikulua berri sortu dira. Guztira 7.484 erreferentzia bibliografiko txertatu dira artikuluetan eta 3.220 irudirekin hornitu dira testuak. Unibertsitateko ikasleekin alderatzen badugu, ikusten dugu askoz hitz gutxiago gehitu direla byte kopuru berberarekin. Honek azalpen sinplea du: erreferentziak puntu asko ematen dituzte, testuekin alderatuta, eta beraz wikilariak arreta gehiago jarri diote erreferentziatzeari, kalitate oso handiko testu batzuk sortuz. Sortutako artikulua berrien kopurua ere oso handia izan da, eta hor sartu behar dugu hilabete batzuetan Txikipediako artikulua ere egon direla lehiaketa. Hala ere, 1.040 artikulua kopuru oso interesgarria da.

Hauek dira 2018ko datuak, hilabetez hilabete.

Urtarrila

Urtarrilean hasi genuen hilabeteroko lehiaketa, Afrikako historiarekin. Gai hau hartu genuen, hezkuntza programan egon ez arren, oso eduki gutxi genuelako euskarazko Wikipedian. Eraitza oso onak lortu genituen hilabete honetan, eta pare bat artikulua nabarmen, portadara ere iritsi direnak.

| Kilobyteak | Hitzak | Artikulu berriak | Erreferentziak | Irudiak |
|------------|---------------|------------------|----------------|------------|
| 943 | 61.061 | 79 | 872 | 533 |

Otsaila

Otsailean euskal musikaren gaiari heldu genion. Diska klasiko eta berriak ziren sariak, eta lehia polita piztu zen. Gaia, hala ere, irekiegi eman genuen, eta ez genuen helburu artikulua behar bezala bete, askok nahiago izan baitzuten gure hezkuntza programatik kanpo zeuden beste artikulua batzuk hobetzea. Berez, euskal musikari buruzko curriculum oso zehatza da, eta denborarekin agian beste artikulua batzuek izango dute interesa. Horregatik, egondako guztia onerako dela pentsatzen dugu.

| Kilobyteak | Hitzak | Artikulu berriak | Erreferentziak | Irudiak |
|------------|---------------|------------------|----------------|-----------|
| 588 | 36.404 | 139 | 683 | 75 |

Martxoa

Martxoan emakumeen historia eta emakumea historian landu genuen. Horretarako, gure hezkuntza programan dagoen generoari buruko zehar-lerroz gain Judy Chicagoren *The Dinner Party* artelana hartu genuen. Bertan agertzen dira 999 emakume historiko eta horien artikulua egitea proposatu genien wikilariei. Ikuspegi zabalagoa hartzea interesgarria izango bazen ere, oso zaila zen mugatzea zer biografia mota nahi genituen. Edozein emakumeren inguruko artikulua egitea proposatuko bagenu, orain arteko profil berbera jasoko genuke: aktore, modelo eta abeslariak.

Oso eraitza onak izan genituen, eta ikastetxe batzuetan eskatu zitzaizkien ikasleei emakumeen biografiak egitea. Gainera, generoari buruzko artikulua batzuk ere hobetu ziren, eta horrek hobekuntza nabarmena eman zion gure proiektu orokorrari.

| Kilobyteak | Hitzak | Artikulu berriak | Erreferentziak | Irudiak |
|------------|---------------|------------------|----------------|------------|
| 673 | 49.406 | 238 | 589 | 184 |

Apirila

Apirilean elikadura eta elikagaiei heldu genion, eta eraitza izugarria izan zen. Saria ere ez zen nolana hiko: Arzaken jatetxean bi pertsonentzako menua. Artikulu kopuru bat izan genuen azalera iritsi zirenak, eta errezeta liburu oso bat ere egin zen Wikiliburuetan. Berriak egindako hainbat material libre zirela probestuz, beste bizitza bat ere eman zaie, eta aurrera begira ehunka elikagairen artikuluen zerrenda bat dugu, beste proiektu bat egiteko aukera ematen diguna.

| Kilobyteak | Hitzak | Artikulu berriak | Erreferentziak | Irudiak |
|--------------|---------------|------------------|----------------|------------|
| 1.170 | 80.912 | 285 | 1.333 | 352 |

Maiatza

Maiatzean guztiz alboratuta dugun gai bati heldu genion: langileen historia. Orokorrean, historia liburuek orain arte jasotakoa historia orokorra izan da, erregeena, gerrena eta konkistena. Badago, azken hamarkada hauetan, herritarren eta langileen historia jasotzeko joera bat. Horri erreparatuz, hainbat gai jarri genituen mahai gainean, lehenengo zerrenda orientatibo gisa.

Emaizta aurreko hilabeteetan baino lasaiagoa izan zen, agian gaiak ez zuelako hainbeste interes piztu edo, martxoan eta bereziki apirilera lehiaketak oso arrakastatsuek izan zirelako, eta wikilari batzuek atsedean hartu zutelako.

| Kilobyteak | Hitzak | Artikulu berriak | Erreferentziak | Irudiak |
|------------|---------------|------------------|----------------|------------|
| 530 | 39.865 | 49 | 449 | 209 |

Ekaina

Ekainean bisita asko dituzten artikulu batzuk hobetzea erabaki genuen, giza sexualitateari lotutakoak. Emaizta ez zen izan uste bezain ona, oso zabal aurkeztu baikenuen gaia eta wikilari gutxik parte hartu zutelako. Gai honek aurrerantzean beste bide batzuk beharko ditu edukiak hobetzeko.

| Kilobyteak | Hitzak | Artikulu berriak | Erreferentziak | Irudiak |
|------------|--------------|------------------|----------------|-----------|
| 149 | 8.548 | 32 | 171 | 59 |

Uda

Udako bi hilabeteak munduko geografiari dedikatu genizkion, hobetu beharreko hirien zerrenda batekin. Gure programan ez daude munduko hiriak, baina "Wikipedia guztiek eduki beharreko artikulu zerrenda hedatua" badago kopuru handi bat eta horiek hartu genituen. Wikilariak uda probestu zuten eduki hauek hobetzeko, eta pare bat artikulu ere iritsi ziren azalera.

Bereziki interesgarria izan zen hilabete hauetan sartu genuela, lehen aldiz, Txikipedian editatzeko aukera. Artikulu berri gehienak Txikipediari dagozkion hilabete hauetan, munduko hiri nagusien inguruko artikuluak ere oso interesgarri baitira umeentzat.

| Kilobyteak | Hitzak | Artikulu berriak | Erreferentziak | Irudiak |
|------------|---------------|------------------|----------------|------------|
| 869 | 29.605 | 110 | 806 | 956 |

Iraila

Irailan bi lehiaketa paralelo antolatu genituen, biak **WikiLovesMonuments** mundu mailako lehiaketaren barruan. Lehenengo lehiaketa mundu mailan Gizateriaren Ondaren diren monumentuen ingurukoa zen, eta

artikuluak egitea zen helburua. Bigarrena 2017an ere antolatu genuen argazki lehiaketa izan zen, EWKEk bere kabuz antolatua eta finantziatua. Argazki lehiaketa antolatzeko arazo batzuk izan genituen, batez ere Eusko Jaurlaritzak duen ondare databasea jaitsi eta antolatzea. Hori gaindituta, iaz baino eraikin gehiago eskaini genituen argazkiak egiteko zerrendan eta emaitzak ikusgarriak izan dira. 800 argazki baino gehiago jaso dira, eraikin mota askotakoak, eta epaimahaiak kalitate oso ona zegoela aipatu zuen. Hauek dira argazki irabazleak:



Goian Euskal Herriko argazkirik onenaren saria. Eskubian Bizkaiko argazkirik onena, Azkue Fundazioak lagunduta, eta 3. sailkatua.



Artikulu edizio lehiaketan Txikipedia ere sartzeak datuak hobetzea ekarri zuen. Gizateriaren Ondare gehienak ez zeuden bertan, eta wikilariek lan ona egin dute ikusgarrienak eta umeentzat interesgarrienak direnak txertatzen.

| Kilobyteak | Hitzak | Artikulu berriak | Erreferentziak | Irudiak |
|------------|---------------|------------------|----------------|------------|
| 446 | 13.120 | 52 | 226 | 364 |

Urria

Urrian astronomiari erreparatu genion. Saria potoloa zen (teleskopio bat) eta gaiak aukera handiak ematen zituen artikulu nabarmen batzuk egiteko. Bereziki bi wikilarik hartu zuten aurre, sari bakarra egotearen arazoa, eta Eguzki-sistemako planeta guztiak eta beste astronomia elementu batzuk nabarmen izatea lortu dute, kultura zientifikoa gaian dauden artikuluak nabarmen hobetuz. Artikulu hauek ikustaldi kopuru izugarria izaten dute, bereziki ikasturte hasieran.

| Kilobyteak | Hitzak | Artikulu berriak | Erreferentziak | Irudiak |
|--------------|---------------|------------------|----------------|------------|
| 1.026 | 53.764 | 29 | 1.599 | 276 |

Azaroa

Azaroan Giza Anatomiaren gaia jarri genuen lehiaketan, eta gai orokorra izanda parte hartze txikia izan genuen. Aurreko hilabeteko sprintaren ondorio izan daiteke, edo ikasturtearen momentua, baina ez genuen lortu hasieran nahi genuena, eta sariak lortzea erlatiboki erraza izan da. Hala ere, egon da artikuluren bat nabarmen izatera iritsi dena, eta ikasleek egindako lanak ere, eta hori pozteko modukoa da.

| Kilobyteak | Hitzak | Artikulu berriak | Erreferentziak | Irudiak |
|------------|--------------|------------------|----------------|-----------|
| 174 | 8.384 | 27 | 141 | 84 |

Abendua

Urteko azken lehiaketan gabonetako bi otar jarri genituen sari gisa eta emaitza polita egon da. Ikasle batzuek parte hartu dute, eta ikasle bat izan da bigarren saria ere eraman duena. Kimikari buruzko lehiaketa oso zehatza zen: taula periodikoa baino ez. Elementu kimiko batzuk asko hobetu dira, baina oraindik lan asko dago egiteko esparru honetan.

| Kilobyteak | Hitzak | Artikulu berriak | Erreferentziak | Irudiak |
|------------|---------------|------------------|----------------|------------|
| 490 | 25.019 | 0 | 605 | 128 |

Genero-oreka

Zaila da ikuspegi orokor bat ematea Wikipedian urte honetan lortutakoaren inguruan, wikilarien lana etengabea delako, eta iturri ezberdinetatik edaten duelako. Baina zerbait nabarmentzekotan genero-orekan egindako aurrerapausoak jarriko genituzke. Martxoan egindako lehiaketaz gain, wikilariak emakumeen biografia gehiago sortzen ari dira, gai horren inguruan kezka dagoelako. WikiEmakumeok bezalako ekimenek ekarpena egin dute ere, txikia wikilariak oro har egiten dutenarekin alderatuta, baina nabarmena bere kalitatea dela eta.

2017ko martxoan egin genuen ikerketan ikusi genuen emakumeen biografiak %13,63 zirela, guztira 3.496 emakumeren biografia zeuden eta 22.141 gizonezkoena. Datua gainontzeko Wikipedien antzekoa zen, baina biografia kopurua nahiko txikia zela ebidentea zen.

Hortik aurrera wikilari askok emakumeen biografiak egiteari ekin diote, eta 2018ko amaieran 6.000 biografira iritsi ginen, emakume transexualak kontuan hartuz. Gaur egun emakumeen biografien ehunekoak 18,5etik gora dago. Aurrerapauso nabarmena, urte eta erdian.

Nazioarteko harremanak

Wikimedia Konferentzia, Berlin

Bi wikilari Berlinen urtero ospatzen den Wikimedia Konferentzian hartu zuten parte. Bertan, egiten ari garen proiektuak azaltzeaz gain, aukera izan zuten hurrengo urtean ospatuko den Wikimedia+Hezkuntza Nazioarteko Konferentziaren inguruko gaiak lotzeko. Hezkuntza programak eta Txikipediak deitu zuten hainbat wikilariren arreta.

Wikimedia Hackathon, Bartzelona

Bost wikilarik hartu zuten parte Hackatoian. ORES sistemaren implementazioaz gain (beherago ikusi), Wikispeechen eta txantilo automatikoen hobekuntzan aurrerapauso nabarmenak eman ziren. Wikiteka indartzeko ere erabili zen, lehenengo pauso guztiak bertan emanaz (beherago ikusi).

Celtic Knot, Gales

Lau wikilarik hartu zuten parte. Hizkuntza txikien sarea osatzeaz gain, hezkuntza programaren inguruan hitz egin zen bertan. Galesen duten hezkuntza programa ezagutu eta hainbat proiektu komun ixteko aukera aztertu zen. Laponiako Samiekin batera egin daitezkeen gauzak aztertu ziren.

Wikimania 2018, Lurmutur Hiria

Hiru wikilarik hartu zuten parte. Wikimania mundu mailako topalekua da, eta gai oso ezberdinen inguruan hitz egiteko aukera egon zen. Hezkuntza proiektuak ezagutu, gurea ezagutarazi, hurrengo urteko konferentziarako lehen deiak eta kontaktuak egin, Afrikako hiru hizkuntza euren proiektuekin lagundu, txantilo automatikoen inguruan egiten dugun lana aipatu, ORES teknologia oraindik gehiago hobetzeko aukera baliatu eta dibertsitate lantaldean parte-hartzea finkatu zen, Wikimedia estrategiaren baitan.

Dibertsitate lantaldean parte-hartzea

Wikilari batek parte hartuko du, ikasturte honetan zehar, nazioarteko dibertsitate lantaldean. Lantalde honen egin beharra izango da Wikimedia Fundazioaren 2030 estrategiaren baitan dibertsitatea hobetzeko gomendioak ematea, hizkuntza dibertsitatea barne. Euskal Wikilarien lanaren onarpen esplizitua da honakoa.

Galiziako hezkuntza programari laguntza

Galiziako wikilariak arreta handiz jarraitu dute egin dugun hezkuntza programa. Celtic Knoten egindako aurkezpenetik aurrera programa bera kopiatzeko helburua jarri dute, eta Galiziako administrazioari proiektua bera laguntzeko eskatu diote. Gure erudia jarraituz, hezkuntza programa jarraitzeko plataforma osoa martxan jarri dute, eta horretarako gure laguntza izan dute, noski.

Txikipediaren sorrera

Aurten egindako hobekuntzen artean Txikipedia dago. Txikipediaren helburua 8-13 urteko haur eta gaztetxoentzat Entziklopedia aske bat sortzea da, eta euskarazkoa izan da lehen Wikipedia proiektu bateratu bezala jasotzen. Vikidian orain arte egondako edukia berrantolatu, hedatu eta hobetu dugu proiektua abiatzeko. Hasi zenean 828 artikuluz zituen, eta urte amaieran 1.365.

Egunero haur eta gazteak Internetera sartzen dira informazioaren bila, eta askok Wikipediara jotzen dutela badakigu. Baina, normalki, ez dute aurkitzen bilatzen duten materiala, edo dagoena ez dute ondo ulertzen. Horri buelta emateko asmoz hainbat proiektu jaio dira Wikipediaren filosofiarekin. Vikidia da horietako bat, eta frantsesez milaka eduki ditu. Euskaraz ere edukiak sortu dira bertan, xumea bada ere.

Hala ere, proiektua nahiko ezezaguna da, eta bertan zegoen eduki hori bisibilizatzeko eta sortzeko arazoak genituen euskal komunitatearen artean. Gainera, Wikipedian ditugun berrikuntza tekniko asko ezin dira bertan erabili, eta txantiloie edo laguntza orrialde ezberdinak behin eta berriz errepikatu behar dira bi proiektuetan. Ez ditugu hainbeste esku.

Aurten mezu bat jaso zuen wikilari batek Vikidiatik: arazo batzuk egon ziren zerbitzariarekin eta proiektua arriskuan egon liteke. Kezka sortu zen Euskal Wikilarien Kultur Elkartearen barnean, eta soluzio bat lortu behar genuela ikusi genuen.

Hiru arazoei (bisibilitatea, arazo teknikoak eta proiektuaren iraunkortasuna) aldi berean erantzuten zion soluzio bat topatu genuen: Vikidiako edukia Wikipediara ekartzea, baina fitxa propio batean. Horrela, artikulua bakoitzak bi bertsio izan ditzake: orokorra eta umeentzat idatzitakoa. Eta bietara leku berberetik sartzen da. Teknikoki posible zela ikusita, Txikipedia izena proposatu zen proiekturako. Nazioarteko laguntza teknikoarekin, dagoeneko prest dago, eta lehen Wikipedia gara horrelako proiektu bat barneratzen.

Hein handi batean Txikipediako artikulua wikilari komunitateak egin baditu ere, esperientzia batzuk abiatu ditugu bai irakasle eskoletan zein bigarren hezkuntzako ikasleen artean beraiek izateko edukiaren sortzaileak. Eta emaitzak onak izan dira. Errazago egiten zaie Wikipedian editatzea baino, eta euren ekarpena egin dezaketen mailarako balio du. 2019an esperientzia hauek biderkatuko direla aurreikusten dugu.

Bestetik, datu ikusgarriak izan ditu Txikipediak. Jaio zenetik abenduaren 31ra arte 164.189 ikustaldi izan ditu; haietatik, 102.000 eduki-orrietara. Artikulurik ikusiena Eguzki-sistema izan da. Azalak 62.180 ikustaldi izan ditu urtean zehar, nahiz eta kopuru bat bilatzaileena izan daitekeela uste dugun. Hala ere, datu izugarriak dira oraindik jaio berria den proiektu batentzat.

Ekosistema, Unibertsoa, Lurra, izaki bizidun, karraskari... dira artikulurik bisitatuenak. Baina oraindik zehaztu beharko dugu zeintzuk diren ikasle gaztetxoek behar dituzten edukiak, eta horietan sakondu. Momentuz, Unibertsitatean abiatu ditugun hainbat proiektuetan ikasleak ari dira eduki horiek lantzen eta zehazten. Laster izango ditugu hobekuntza nabarmenak.



Txikipedia
txiki eta aske

Wikitekaren sorrera

Aurten elkartetik jarritako beste helburu bat Wikisourcenz zeuden euskarazko testuak hobetu, komunitate bat sortu eta proiektu propioa lortzea zen. Horretarako, Kataluniako Amical elkartearen laguntza izan dugu, eurek dagoeneko Wikisourcenz pauso handiak eman baitituzte.

Wikisourcek jatorrizko testu libreak jartzeko aukera ematen du, liburutegi digital baten eran. Liburu guzti horiek libreak izan dbehar dira, ordea. Testu zaharretatik abiatuz, digitalizazioak berridatzi eta testuak maketatu behar dira, liburutegi libre bat eskainiz, formatu ezberdinetan.

Hainbat pauso eman ostean, 2018ko apirilean domeinu propioa izatea lortu genuen, eu.wikisource.org. Euskaraz izen propioa ematea erabaki genuen, Wikiteka, eta wikiteka.eus domeinutik ere bisita daiteke.

Une honetan aktibitate apala du, eta testu gutxi ditu, baina etorkizunerako tresna bat da, batez ere liburu askeak lortzen direnean. EHUko Informatika Fakultatearekin egiten ari garen elkarlan baten ondorioz, literatura klasikoko hainbat testuren OCR prozesua egin eta libre jarriko dira, Wikitekarako guztiz erabilgarri.



WIKITEKA

Helburu-artikuluen hobekuntza

Artikuluen zerrendan aldaketak

Artikuluen zerrenda etengabe hobetzen doa, izan irakasleek egindako ekarpenak direla eta, edo artikuluen batzuk beste batzuen barruan dauden kontzeptuak adierazten dituztelako. Artikulu batzuk beste batzuentzat aldatu dira ikasturte honetan, zerrenda bere horretan mantentzen saiatzen.

Hala ere, izan dira bi gehikuntza garrantzitsu. Bata fisika eta kimikaren eremuan, jada matematikan zegoen artikulua bat kendu eta termodinamikari buruzko oinarritzko 6 artikulua sartuz. Bestea, nabarmenagoa, literaturaren eremuan.

Hasieratik ikusi genuen zaila izango zela literatura unibertsaleko corpus bateratu bat egitea. Izan ere, Heziberri Curriculum dekretuak ere ez du corpusik proposatzen, eta testu liburuen egileen esku geratzen da koherentea den bide bat proposatzea. Guk elkarlana dugun bi entintaterekin egitea erabaki genuen. Alde batetik literatura unibertsalaren gaia aztertu dugu Donostiako Liburuzainekin. Euskarara ekarriak diren obren egileak proposatu dituzte, irizpide gisa, zerrenda hau egiteko. Urte osoan zehar zerrenda berri horren gainean lanean izan dira, eta hobekuntzak nabarmenak izan dira. Dagokion atalean aztertuko dugu egondako hobekuntza, eta zerrenda honek Wikipediatik kanpo izandako eragina ere.

Bestetik, Armiarma databasearekin lanean egon garen bezala, Susa argitaletxeari euskal literaturari buruzko bi lan eskatu dizkiogu. Horiek osatu eta artikulua gisa jartzea hurrengo urterako lana izango da. Beraz, baliteke hurrengo urtean artikuluen zerrenda hedatuagoa izatea, eta estatistikak aldatzea erronka berri horren ondorioz.

Hurrengo urtean izan dezakegun beste ekarpen bat gorputz hezkuntzaren atalari etor liteke. Bertan zerrendatzen diren kirolak baino, olinpiar kirolei erreparatzeko proposamen bat dago, eta ondorioak zeintzuk diren aurrerantzean baloratuko ditugu. Edonola ere, saiatuko gara amaierako zerrendak ez izatea 2.000 artikulua baino gehiago.

Estatistikak egiterako garaian, sartzen diren artikuluek proiektua hasi zenean zuten luzera hartzen da kontuan. Kalitatearen neurketa zailagoa da, historialean sakon arakatu behar baita.

Kalitate neurketarako bidea: ORES

Proiektua hasi genuenean "Kalitateazko 1.000 artikulua 12-16 urteko ikasleentzat" egin nahi genituela adierazi genuen. Kalitate neurketa, ordea, ariketa konplexua da. Hasiera batean byte kopuruari bakarrik erreparatzen genion, baina neurketa horrek baditu bere arazo objektiboak: edukiaren aurkezpenak testu kopuruak baino garrantzi handiagoa du, askotan. Byte kopuruaz gain beste neurketa bat egiteko modua ORES sistemarekin aurkitu genuen, intelijentzia artifiziala erabilita. Ez da euskarazko lehen intelijentzia artifizial zerbitzua, baina baliteke publikoa den lehenengoa izatea.



ORES siglek *Objective Revision Evaluation Service* esan nahi dute, eta izenak dioen bezala ebaluazio zerbitzu objektibo bat sortzea da helburua. Hasiera batean kanpo zerbitzu gisa

sortu zen, baina 2017an Wikimediaren barne sistema gisa eskaintzen da, hala behar duten hizkuntzei. Bi zerbitzu eskaintzen ditu ORESeK: alde batetik egindako ekarpenen neurketa eta balorazioa egiten du, nahita gainki egindakoak identifikatuz. Bandalismoaren aurkako borroka deitzen zaio sistema honi, eta emaitza oso onak eman ditu Wikipediari handienetan, bereziki ingelesezko Wikipedian. Beste zerbitzua, gutxiago erabili dena orain arte, artikuluen kalitatearen neurketa izan da, lehenago WP10 deitzen den proiektua eta orain articlequality izena daramana. Sistema Wikimedia Fundazioaren barruan sartu zenean euskaraz kalitate neurketa egin ahal izateko eskaera egin genuen, eta prozedura luze bat hasi zen helburu hori lortu ahal izateko.

Ikasleekin praktikak

Egindako lehen lana EHUko Informatika Fakultateko bi ikaslerekin praktika proiektu bat egitea izan zen, Montserrat Maritxalar eta Kepa Sarasola irakasleen laguntzarekin. Heburua izango zen sistema hau zuzenean instalatzea euskarazko Wikipedian. Hilabete pare bateko ikerketaren ostean, ondorioztatu genuen ezinezkoa izango zela zuzenean instalatzea, Wikimedia Fundazioaren eksu zeuden hainbat prozesu eurek egin beharko zituztelako. Hala ere, aurrera pauso nabarmena egin genuen: kalitatea bera nola neurtu erabakitzea zen lehenengo gauza: zer baloratuko genuen eta zer ez, nola neurtuko genuen wikilari ezberdinen parte-hartzea eta orain arte ontzat ematen genuena ona ote zen eztabaidatu genuen.

Ildo horretan, eztabaida ireki zen euskarazko Wikipedian, "Nabarmen" eta "On" zer definitzeko helburuarekin. Orain arte, artikulua nabarmenduak irizpide ez oso objektiboekin adierazten genituen, eta bagenuen oraindik lausoagoa den "Artikulu onak" izeneko kategoria bat, non nabarmenak ez ziren batzuk sartzen genituen. Eztabaidaren helburua irizpide objektiboak jartzea izan zen, ORES instalatzeko prozesuan lagungarri izan zena.

Artikulu nabarmenduek bete behar dituzten irizpideak

- Luzera. Artikuluak gutxienez 25.000 byteko luzera eduki beharko du.
- Idazkera egokia. Testuak euskara batuan egon behar du, eta akatsik ez. Estilo Gida jarraitu eta kohesioa gorde.
- Azalpenak modu argian emanda egon beharko dute, gaian aditua ez den pertsona orok ere ulertu dezan.
- Gramatika, ortografia eta sintaxi zuzenak. Zuzentzaile ortografikoa pasatzea derrigorrezkoa da, akatsak ekiditeko.
- Neutraltasuna. Testuak ikuspuntu neutral bat behar du izan, adjektibazio subjektiboa saihestuz eta modu orekatsuan datuak hornituz.
- Egituraketa eta itxura garbia. Sarrera egoki bat, gaiari buruzko azalpenak ematen dituzten hainbat atal (artikuluaren mamia edo garapena) eta ondorio atal bat, gaiak hala eskatzen badu.
- Funtsezko atalak eduki behar ditu: aurkeztu eta laburbiltzen duen aipatutako Sarrera osatua; Ikus, gainera; Kanpo loturak; Erreferentziak; etab.
- Wikituta. Adibidez, barne estekak, oin-oharrak (beharrezkoak badira). Horiek eskuratzeko, Wikimedia Commons eta Wikiteka (lehen mailako iturriak), Wikiesanak, edota Wikiliburuak bitartekoak balioetsiko dira, baita haiekin estekak egitea ere.
- Irudiak, aipuak, taulak edota multimedia erabiltzea baloratzeko gauza da. Aurkibide txantiloiak edo infotaulak bezalako txantiloiak edukitzea ere garrantzizkoa da.

- Egiaztagarritasuna. Artikuluak erreferentziak eduki beharko ditu, testu osoan zehar banatuta (erreferentzia bat paragrafo bakoitzeko batez beste), eta fidagarriak izan beharko dute. Erreferentziak txertatzerakoan dagokion txantiloia erabili beharko da, ahal den aldi guztietan.

Artikulu onek bete beharreko irizpideak

- Luzera. Artikuluak gutxienez 10.000 byteko luzera eduki beharko du.
- Idazkera egokia. Testuak euskara batuan egon behar du, eta akats kopuru oso gutxi. Zuzentzaile ortografikoa pasatzea beharrezkoa da.
- Neutraltasuna. Testuak ikuspuntu neutral bat behar du izan, adjektibazio subjektiboa saihestuz eta modu orekatsuan datuak hornituz.
- Egituraketa. Artikuluak ataletan banatuta egon behar du, modu txukunean eta orekatuan. Gaiaren mamia azaltzen duten funtsezko atalek egon beharko dute, baina ez ditu behar NA artikuluen atal guztiak.
- Wikituta. Artikuluak estekak, argazkiak eta behar denean txantiloiak eduki beharko ditu, baina ez du wiki objektuen ugaritasunik behar.
- Egiaztagarritasuna. Artikuluak erreferentziak eduki beharko ditu, eta fidagarriak izan beharko dute (gutxienez bi iturri). Erreferentziak txertatzerakoan dagokion txantiloia erabili beharko da, ahal den guztietan.

ORES sistema martxan jartzea

Bi ikasleekin egindako lanak fruituak ikusi zituen Bartzelonan ospatutako Wikimedia Hackatoian. Wikimedia Hackatoia urtero ospatzen den asteburu bateko ekitaldia da, eta 2018an Bartzelonan egin zen. Bertara gonbidatu genituen praktketan zeuden bi ikasleak eta euren irakasle Kepa Sarasola, eta asteburu horretan ORES teknologiarekin aurrerapausoak egiteko helburua jarri genuen, bertan egongo baitziren teknologiararen garatzaileak. Saiakera batzuk egin ostean, Aaron Halfaker, ORESen arduradunarekin bilera egin, eta egindakoa ikusi genuen. Euren sistema instalatzeko beharrezkoak ziren pausoak egin ziren, eta asteburu horretan eman genuen lehenengo pausoa.



ORES sistema ikertzen Wikimedia Hackatoian, Bartzelona.

Egin beharreko lehen lana ebaluazio irizpide bat jartzea zen. Gure kasuan ingelesezko sistema bera erabiltzea erabaki genuen: artikulurik okerrenak zirriborro gisa baloratu genituen, soilik sarrera bat dutenak. Zerbait dutenak "Hasi" mota esleituko genien. Ondoren C mota etorriko litzateke, eduki nahikoa dutenak, baina oraindik zerbait falta dutenak artikulua ontzat emateko. B mota izango lirateke artikulua on izateko zorian daudenak, baina onak izateko irizpide batzuk falta dituztenak: atalak falta, irudiak falta, erreferentzia gutxi edo bat ere ez... ondoren, lehendik wikilariak erabakitako irizpideekin baloratuko lirateke artikulua on eta nabarmenak. Sei graduko sistema izango zen, beraz.

Softwarea euskaratu ondoren, lehen ebaluazioa egiteko unea iritsi zen. Sistemak 400 artikulua eman zizkigun, eta nota jartzea eskatu. Nota hori ez da guztiz objektiboa, baina sistemak ikasten du komunean dutena zer den, eta sei parametro horien arabera nola ikasten du. Adibidez, ikusten badu nabarmen diren guztiek tamaina bat dutela, eta erreferentzia kopuru bat, hori hartuko du irizpide gisa beste artikulua baloratzeko. Era berean, ikusten badu paragrafo luzeegiak dituzten artikuluek nota okerragoa ateratzen dutela, hori hartuko du irizpide gisa nota txarra jartzeko. Sistemak ez daki euskaraz, ez daki testua koherentea den edo neutrala den (hori wikilariari dagokio), baina egiturazko osotasunari buruzko datuak ematen dizkigu.

Behin ORESi 400 artikuluen notak emanda, pare bat asteko lana izan zen hortik ebaluazio irizpideak aztertu eta zerbitzariak euskarazko Wikipediarentzako ebaluazio sistema eskaintzeko. Ikasturtea amaitzearekin batera, edukien lehen kalitate neurraketa izan genuen.

ArticleQuality.js, euskarazko Wikipedia aitzindari

Birika



Kalitate neurraketa: ★ (4.87)

Birikak arnas-aparatuaren organo nagusia dira gizakiengan eta beste hainbat animalietan, tartean arrain eta barraskilo batzuetan ere. Gizakien eta ugaztun gehien kasuan bi birika daude, bihotzaren alde bietan kokatuta daudenak. Birikak atmosferako oxigenoa hartu eta odolera bideratzen dute eta, aldi berean, odoloko karbono dioxidoa kanporatzen dute. Prozesu horri **arnasketa** deitzen zaio. Espezieen arabera **muskulu** ezberdinek parte hartzen dute arnasketan, ugaztunen, **narrastien** eta **hegaztien** arnasketarako muskulu-sistema ez da berdina. Lehen **tetrapodoetan** airea biriketara bideratzen zen **faringeko** muskuluak erabilita, **aho-punpaketa** eginez, gaur egungo **anfibiok** egiten duten bezala. Gizakiengan, arnasketarako muskulu nagusia **diafragma** da. Biriketarik kanporatutako airea **soinuak** egiteko erabili daiteke, adibidez **mintzoa** horren ondorioa da. Gizakiek bi birika dituzte, bata ezkerrean eta bestea eskuman, **toraxean** kokatuta. **Bihotzak** betetzen duen espazioa dela eta, eskuineko birika bere homologoa den ezkerreko birika baino handiagoa da. Bi birikak 1,3 kilogramo pisatzen dituzte, gutxi gora behera, eskumakoa pixka bat pisutsuagoa izanda. Birikak arnasketa-sistemaren behealdean daude, **trakean** hasi eta **bronkio** eta **bronkiolotan** banatzen den eremuan. **Arnasbideetatik** **inhalatutako** airea jasotzen dute. Arnasbidea bronkiolo terminaletan amaitzen da, gas-trukaketa eginez. Gas-trukaketa hori, birikak osatzen dituzten **albeoloen** eta odolaren artean gertatzen den oxigenoaren eta karbono dioxidoaren difusioari esker gertatzen da. Horregatik, albeoloek harreman estua dute **kapilarrekin**. Albeoloetan gertatzen dira oxigenoaren airtik odolerranzko sarrera eta karbono dioxidoaren odoletik aieranzko irteera. Odolaren eta albeoloen arteko gas-igarotze hori (**difusio simplea**), oxigeno eta karbono dioxidoaren presio partzial ezberdinen ondorioz gertatzen da. Elkarrekin, giza birikak 2.400 kilometro arnasbide eta 300 eta 500 milioi albeolo artean dituzte. Birika hiru lobulutan



Irudi honetan ikus daiteke ikasle talde batek egindako "Birika" artikulua duen egoera: alde batetik kalitate neurraketa nabarmendu gisa markatzen du, izar batekin. Bestetik, goian eskubian ikus daiteke une honetan artikulua bozketa baten parte dela, benetan nabarmendua den edo ez erabaki eta azalera eramateko. Bigarren kasu honetan wikilariak erabakiko dute artikulua merituak zeintzuk diren.

ORES sistemak API bidez funtzionatzen du, eta zaila da hortik ebaluazio publiko bat ateratzea. Horregatik hurrengo erronka jarri genuen: euskarazko Wikipedia artikuluen kalitate neurraketa automatikoa zuen lehen Wikipedia izatea nahi genuen. Horretarako, Aaron Halfaker eta bere ekipoarekin berriro jarri ginen harremanetan. Hego Afrikan egondako denboran martxan jartzea lortu genuen, guztiz aitzindari: **ArticleQuality.js**. Sistema honek artikulua hasieran jartzen du artikulua horrek momentu horretan duen balorazioa, eta bere historialean ikus daiteke, gainera, izandako eboluzioa.

Hori gutxi balitz, CSS eta JS nahastuz, 1.000 artikuluen zerrendan ditugun artikuluen kalitatea automatikoki neurtzen du, artikuluen hasieran unean duen nota jarrita. Honela, ikuspegi orokor bat izateaz gain, ikasleek errazago dute euren lanerako hartuko duten artikulua zein den zehaztea.

Unibertsoa (23) [aldatu iturburu kodea]

Kontzeptu batzuk kendu dira, Fisika eta Geologia eremuetan ere lantzen direlako

-  Unibertsoa
-  Big Bang
-  Galaxia
-  Izar
-  Planeta
-  Zulo beltz
-  Materia ilun
-  Energia ilun
-  Izar eboluzio
-  Supernoba
-  Izarren nukleosintesi
-  Eguzki-sistema
-  Eguzkia
-  Merkurio (planeta)
-  Artizarra
-  Ilargia
-  Marte
-  Jupiter
-  Saturno
-  Urano
-  Neptuno
-  Planeta nano
-  Satelite natural

Bizi kalitatea (14) [aldatu iturburu kodea]

-  Osasun
-  Eritasun
-  Medikuntzaren historia

Irudi honetan ikus daiteke artikulua sorta batek duen kalitatearen neurketa. Sistemak automatikoki esaten digu zer dagoen hobetzeko, zer dagoen ondo eta zer izan daitekeen artikulua nabarmendua, ebaluazio zuzena eginez azalera eramateko aukerarekin. ORES sistemaren aplikazio honetan aitzindaria izan da euskarazko Wikipedian.

Dagoeneko egindakoaren berrikusketa

Kalitate-sistemaren berrikusketa honek aukera eman digu orain arte egindako balorazioak berrikusi, eta gure Wikipediaren egoeraren balorazio hobea egiteko. Urteetan zehar "Artikulu nabarmen" eta "Artikulu on" izendapenak uneko kalitate erlatiboen arabera eman dira, eta dagoeneko, askok, ez zuten orain dugun irizpidea betetzen. Wikilari batzuk orain arte egindako guztia berrikusten ari dira, kalitate hori benetakoa den edo ez ezagutzeko.

Bestetik, wikilarien lanari esker, ikasle batzuek egindako artikulua Wikipediako azalera iritsi dira, objetiboki artikulua bikainak direla iritzita. Ikasleen lan horiek azalera eramateak, irizpide zehatzak erabilia, lagungarri izan da irakasle gehiago proiektuan sartzeko, hurrengo atalean azalduko dugun bezala.

Eragina ikasleen lanetan eta irakasleen pertzepzioan

Ez dugu neurketa edo inkesta soziologikorik egin ikasleen eta irakasleen pertzepzioaren inguruan, baina emandako ikastaroetan ikusi dugu ebaluazio sistema automatikoa jarri dugunetik, artikuluen kalitatea hobetzeko gogoia egon dela.

Alde batetik, ikasleek ikusten dute nola eurek egindako lanak nota bat duen, eta guztiek nahi dute ahalik eta nota hobea eskuratu. Notaren bila doazen ikasleek artikulua on edo nabarmendu izaera lortzeko helburua jartzen diote euren buruari, eta askotan artikulua amaitu ondoren konturatzen dira ez dutela nota hori erreferentziak, irudiak edo atalen ordenatze bat behar dute horretarako. Ikasleek eurek beste ordu batzuk sartzen dituzte hori lortu eta nota hobetzeko, nahiz eta euren lanaren nota erreala irakasleak jarriko duen.

Irakasleek, bestetik, artikuluen kalitate on hori baloratzeko aukera dute, eta sistemak berak artikuluen inguruan zer pentsatzen duen esaten dio. Artikulu batzuk azalera iritsi direnez, irakasleekin egiten ditugun aurkezpenetan aukera dugu horien erakusteko, eta irakasleek ikusten dute ikasleek uste zutena baino hobeto idazteko aukera dutela. Elhuyarren Zientzia eta Teknologia Hiztegiko edukiak barneratu dituzten artikuluetan ere, irakasleek kuriositatea izan dute eurek egindako artikulua nola baloratzen den ikusteko, eta ikasi dute ikasle askok egiten dituzten lanak eurek aurretik egindakoak baino hobekiago direla, nahiz eta kontzeptu, terminologia edo ordena hobetu behar.

Hobekuntza orokorra

Artikuluen hobekuntza neurtzeko irizpide asko jar daitezke. Guk, artikuluen luzeran egondako aldaketa neurtzeko dugu, alde batetik, eta ORES sistema erabilia artikuluen osotasun estrukturalan egondakoa, bestetik. Lehenengoa kalitate kuantitatiboaren inguruko neurketa dela pentsatzen dugu; bigarrena, ordea, kualitatiboa dela uste dugu. Bietan, hala ere, badago neurtu ezin den parametro bat: testuak duen edukiaren balioa eta hizkeraren kalitatea. Hauek neurtzeko beste sistema bat asmatu beharko litzateke, eta gure proiektuaren mugetatik kanpo dagoela deritzogu.

Artikuluen luzera


Hiru unetan egin dugu artikulu zerrendaren neurketa: proiektua hasi zenean, 2017ko irailean; lehen lauhilekoa amaitu zenean, 2018ko ekainean; eta txosten hau idazterakoan, 2018aren amaieran. Esan behar da oraindik ikasle batzuek ez dituztela euren artikulua igo, baina aldaketa oso txikiak izango dira artikuluen luzeraren neurketa honetan.

Artikuluen zerrenda sortu genuenean, 5.950,7 byte neurtzen zuen artikulu bakoitzak batez besteko. Hortik ondorioztatu genuen ere 5.000 bytetik gorako artikulua edukitzea izango zela neurketa posibleetako bat. Zerrendan dauden 1.718 artikuluen neurketa egiterakoan ikusi genuen 332 (%19,32) sortu gabeko artikulua zirela, 841 (%48,95) 5.000 bytetik behera zeudela eta 545 5.000 bytetik gora (%31,72). Bereziki garrantzitsua da ikustea artikulurik laburrenak, 1.000 byte baino gutxiago dituztenak, nola aldatu diren. Proiektua hasi zenean 203 artikulu ziren tamaina horien barruan sartzen zirenak. Era berean, artikulu guztien artean mediana 2,439,5 bytekoa zen. Oso zenbaki txikia, 5.000 byteko kopurua helburu jarri bagenuen.

Ekainean egindako neurketak eman zigun jada lehen hobekuntzaren berri. Artikuluen batez besteko luzera 7.372,44 bytekoa zen, %23,89 hobeago. Mediana ere 3.325 bytera igo zen, hobekuntza esanguratsua (%36,3). Sortu gabeko artikulua 258 ziren (%15,02), 5.000 bytetik beherakoak 786 (%45,75) eta 5.000 bytetik gorakoak 674 (%39,23).

Urte amaieran egindako neurketak datu esanguratsuak eman dizkigu. Artikuluen batez bestekoa 9,394,6 bytera igo da, %57,87 gehiago. Mediana ere 4.366 bytetan jarri da (%78,97 gehiago), 5.000tik gertu. Izan ere, 216 artikulu baino ez dira jada sortu behar direnak (%12,57), 698 artikulu dira 5.000 baino laburragoak (%40,63) eta 804 dira luzeagoak (%46,8).

Hurrengo grafikan ikus daiteke artikuluen luzeraren aldaketa denborarekin. Urdinez hasierako banaketa, non sortu gabeko artikulua eta 2.500 byte baino laburragoak ziren artikuluen kopurua handia zela ikusten zen. Laranja, ekainean egindako bigarren neurketa, artikulurik txikienen beherakdarekin. Horiz, abenduan egindakoa, non argi ikusten den 5.000 bytetik beherako artikulua murriztu direla eta hortik gorakoak nabarmen igo, bereziki 5.000-10.000 eta 10.000-15.000 byteko tartetan.



I. Gehigarrian dago artikuluen zerrenda osoa, eta bakoitzak izandako hobekuntza zein izan den.

Artikuluen kalitatea

| Arloa | 🚫 | | ⚠️ | | 🟡 | | 🟢 | | 🟢+ | | ★ | |
|--|------------|-----------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|
| | Eka | Abe | Eka | Abe | Eka | Abe | Eka | Abe | Eka | Abe | Eka | Abe |
| Matematika | 13 | 7 | 47 | 43 | 25 | 32 | 6 | 10 | 4 | 4 | 0 | 0 |
| Biologia — Geologia | 3 | 1 | 86 | 62 | 51 | 63 | 21 | 29 | 21 | 33 | 2 | 3 |
| Fisika — Kimika | 3 | 2 | 80 | 55 | 39 | 50 | 16 | 28 | 5 | 15 | 1 | 1 |
| Geografia — Historia | 14 | 12 | 99 | 96 | 52 | 53 | 18 | 45 | 30 | 31 | 7 | 9 |
| Kultura zientifikoa | 2 | 0 | 15 | 14 | 13 | 12 | 9 | 6 | 4 | 7 | 3 | 11 |
| Informazioa eta komunikazioaren teknologia | 1 | 0 | 17 | 8 | 10 | 13 | 7 | 14 | 3 | 4 | 1 | 1 |
| Hizkuntzak | 5 | 5 | 15 | 13 | 9 | 10 | 9 | 9 | 6 | 6 | 0 | 3 |
| Literatura | 2 | 3 | 58 | 40 | 29 | 52 | 35 | 27 | 6 | 12 | 0 | 1 |
| Ekonomia — Ekintzaitza | 19 | 13 | 42 | 48 | 19 | 19 | 5 | 6 | 4 | 5 | 1 | 1 |
| Kultura klasikoa | 11 | 12 | 49 | 49 | 9 | 10 | 7 | 8 | 7 | 6 | 0 | 0 |
| Filosofia | 4 | 4 | 22 | 22 | 10 | 11 | 1 | 3 | 3 | 1 | 0 | 0 |
| Plastika eta ikus-entzunezkoak | 5 | 5 | 58 | 58 | 37 | 41 | 13 | 11 | 5 | 6 | 0 | 0 |
| Musika, dantza eta antzerkia | 11 | 10 | 63 | 63 | 42 | 43 | 22 | 22 | 3 | 3 | 0 | 0 |
| Gorputz hezkuntza | 10 | 13 | 13 | 13 | 12 | 11 | 4 | 5 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Zeharlerroa: Emakumea eta generoa | 0 | 0 | 23 | 24 | 10 | 9 | 5 | 6 | 1 | 1 | 2 | 2 |
| Guztira | 103 | 87 | 688 | 607 | 366 | 429 | 178 | 230 | 102 | 134 | 17 | 32 |
| C edo hobekuntza | | | | | | | | | | | 663 | 825 |

Aurretik aipatu dugun ORES sistema erabilia bi neurketa egin genituen ekainean eta abenduan artikuluzerrendaren gainean. Neurketa hauek egiturazko osotasuna ikusten dutela kontuan hartuta ere, byte kopurua baino interesgarriagoa da kalitatea neurtzeko. Eta gai askotan artikulua on batek C maila lortzen duela ikusita (agian ez dagoelako askoz gehiago esaterik gai horren inguruan) kalitatezko artikulua C mailatik gora direnak kontsideratzea erabaki dugu, nahiz eta kasu batzuetan kalitate hau urria izan gai oso sakonetan.

Aurreko taulan argi ikusten denez, artikulua berriak egiteak ez du kalitate txikia handitu: kalitateak eremu guztietan gora egin du. Zirriborro hutsa diren artikulua geroz eta gutxiago dira eta eremu batzuetan ez dira existitu ere egiten. Hau albiste oso ona da, zirriborro horien gainetik egoteak jada gaiaren inguruko ideia orokor bat izateko aukera dagoela esan nahi baditu.

Hasi motako artikuluek eduki minimoa dute, batzuetan gaizki antolatua egoteagatik ere ez da agertzen nota hobearekin. Hau da kopururik handiena duen kategoria, baina nabarmen egin du bera ere. Kontuan hartu behar da sortutako artikulua berri asko oraindik fase honetan daudela, eta beraz artikuluen sorrera amortizatzen duen eremua izan dela.

C motako artikuluek gorakada nabarmena izan dute, eta dagoeneko proiektu honetako artikulurik ohikoenen artean daude. Artikulu hauek hobekuntzak behar dituzte, oro har, baina askok ezin dute gehiago hazi, eta baliteke hor geratzea.

B motak gorakada handia izan du ere. Gainera, zaila da artikulua bat B mailan egotea, sistemaren baitan C eta artikulua onaren artean dagoen tartea txikia baita. B mailako artikulua askok erreferentzia gutxi batzuk baino ez dituzte behar artikulua on gisa agertzeko.


Artikulu onak ere %30 hazi dira, eta ORES sistema publikoki jarri dugunetik ikasle asko saiatzen dira maila honetara heltzen euren artikuluekin. Litekeena da 2019an gorakada oraindik nabarmenagoa izatea.

Artikulu nabarmenak guztietan zailenak dira. Hala ere kopurua bikoiztu da, eta 2019ko urtarrilean eta abenduan antolatu ditugun lehiaketekin litekeena da oraindik gehiago igotzea. Artikulu bikainak dira, eduki askorekin, batzuk inprimatuta 50 orrialde baino gehiago hartzen dituztenak. Funtsezko gai askok maila hau dute, baina gai guztiek ezin dute kalitate hau eskuratu, ez baitago eduki nahikorik horren inguruan idazteko.

Gogoan izan behar da neurketa hau erlatiboa dela. Hau da, guk definitu dugu zer den nabarmen eta on, eta horren arabera ikasi du sistemak. Berriro ere 400 artikulua ebaluatuko bagenitu, litekeena da emaitzak aldatzea, bai eskuratutako artikulua ezberdinak direlako, edo nota hori emateko irizpideak aldatu direlako. Ziurrenik 2019an beste neurketa bat egingo dugu, eta datu hauek doituko dira. Doipen horrek neurri berriak hartzea eramango gaitu, hala beharrez.

Hobekuntza arloz arlo

Matematika



Matematikaren hobekuntza nabarmena izan da tamaina erdiko artikuluen aldera. Egia da oso zaila dela matematikaren 20.000 byte baino gehiago dituzten artikulua egiteko, ez baitira prosa, historia edo antzeko gaiak izaten. Artikulurik laburrenak desagertzeaz daude, eta hasieran genuen tartetik nabarmena (500-1000) dagoeneko ez da handiena, orain 5.000-10.000 tartea delarik.


Byte kopurua 252.758 hazi da denbora honetan, %61,54. Hobekuntza handia, gai korapilotsua dela ikusita. Oraindik ere artikulua gutxi batzuk sortzeke daude eta beste batzuk laburregiak dira, baina 2019an horri buelta ematea nahiko posible dela uste dugu.

Hala ere, matematikaren esparruan aukera gutxi ditugu unibertsitateko artikulua egiteko, Matematika gradua ikasten dutenek maila askoz altuagoko gaiak lantzen dituztelako. Horregatik, informatika eta ingeniarietako ikasleek gain, "Euskararen Arauak eta Erabilerak" ikasgaiko ikasleen papera oso garrantzitsua izango da aurrera egiteko.

Artikulurik irakurrienak

- 1 Koordinatu geografikoen sistema
- 2 Zatiki (matematika)
- 3 Azalera
- 4 Estatistika
- 5 Berreketa
- 6 Latitude
- 7 Bolumen (espazioa)
- 8 Poliedro
- 9 Hiruki
- 10 Poligono
- 11 Lauki
- 12 Kartesiar koordinatu
- 13 Longitude
- 14 Pi (zenbakia)
- 15 Zuzen (geometria)

Biologia eta geologia



Biologia eta geologiaren eremuan ikusten dugun hobekuntza nabarmenagoa da. Existitzen ez diren artikulua gutxi dira, oso laburrak zirenak ia desagertu, eta 10.000 bytetik gorako esparru guztietan hazi. Esparru honetan oraindik hazteko aukera handia dago, artikulua asko "on" bezala markatuta daudelako eta urtarileko zein abenduko lehiaketatan 50.000 byte baino gehiagoko esparruetara pasatzeko aukerak daudelako.


Guztira 1.100.891 byte idatzi dira, eta artikulua %83,37 hobetu dira. Prosa handiko artikulua egin daitezke, eta biologia zein geologia karrerarako ikasleekin proiektu berria abiatu ditugu 2018ko amaiera aldean. Hasieran biologiarira iristea zaila izan zitzaigun, eta geologiako artikulua batez ere kimikako ikasleekin landu ziren. Baina egoera horri buelta emateko egindako bileren ondorioz, aukera handiak daude 2019an zehar emaitza hauek nabarmen igotzeko.

Bestetik, hainbat ingeniartzatan lantzen diren ekologiari buruzko gaiak ere hasi gara hemengo proiektuarekin bateratzen. Ekologia, ekosistema eta Euskal Herriko ingurumen arazoaren inguruko beharrak asetzeko bideak topatzen ari gara orain.

Artikulu irakurrienak

- 1 Lurra
- 2 Digestio-aparatu
- 3 Zelula
- 4 Sumendi
- 5 Arroka
- 6 Mineral
- 7 Landare
- 8 Lurrikara
- 9 Bakterio
- 10 Plaken tektonika
- 11 Ekosistema
- 12 Nerbio-sistema
- 13 Gizaki
- 14 Ugaztun
- 15 Animalia

Fisika eta kimika



Fisika eta kimikaren eremuan aurrekoan gertatzen zena are nabarmenago geratzen da. Alde batetik ia ez da geratzen egin gabeko artikulurik, eta 1.000 byte baino txikiagoak ziren artikulua guztiak desagertu dira. 5.000 byte baino txikiagoak diren artikulua ere gutxi dira dagoeneko, eta 5.000 eta 10.000 arteko tartean eta, bereziki 20.000 eta 30.000 arteko tartean artikulua ugaritu dira. Gai zaila da, hala ere, hazkuntza oso handia emateko, askotan formulak dituzten artikulua izaten baitira.

Guztira 985.249 byte gehitu dira eta artikulua %176,65 hazi dira, hazkuntza guziten artean handienetako bat. Grafikoan ondo ikusten da lehenago oso artikulua gutxi zituztela 10.000 byte baino gehiago, eta orain gehiengo direla.


Esparru bereziki erraza da lantzeko, fisika, kimika eta ingeniariak guztiek landu dezaketelako gaia, eta gainera wikilari batzuek ondo kontrolatzen dutelako.

Hurrengo urteari begira, falta diren artikulua bukatzeaz gain, laburrenak hartzeko apostua egingo dugu, eta artikulua nabarmen batzuk sortzeko. Berezi kimikaren alorrean posible da egitea.

Artikulurik irakurrienak

- 1 Energia
- 2 Taula periodikoa
- 3 Dentsitate (fisika)
- 4 Galileo Galilei
- 5 Atomo
- 6 Lurraren atmosfera
- 7 Karbono
- 8 Hidrogeno
- 9 Plastiko
- 10 Oxigeno
- 11 Uhin
- 12 Soinu
- 13 Proteina
- 14 Indar
- 15 Temperatura

Historia eta geografia



Historia eta geografian aldaketa gutxi izan ditugu, hemen ikusten den bezala. Artikulu gehien dituen eremua da, eta grafikoak mugitzea zaila da, baina ez da ikusten, aurrekoetan bezala, edukia gehiegi aldatu denik. Artikulurik luzeenak bai hazi dira, labur batzuk kendu eta, batez ere, existitzen ez ziren batzuk egin dira.

Nabarmena da esparru honetan dugun zailtasuna irakasleengana heldu eta euren ikasleek gaiak lantzeko. EHUren Letren Fakultatea orain arte emaitzarik eman ez duen fakultatea da, eta Gizarte Zientzien Fakultatean zerbait egin badugu ere, ez diote heldu artikuluen muinari. Egon dira ere irakaslearentzat lana egin baina artikulu gisa igo ez dituztenak, irakasleak aukerak utzita.


Esparru honi heltzeko bi lehiaketa antolatu ditugu 2019an, eta espero dugu horrekin hobetzea edukiak. Bestetik, Letren Fakultatean esfortzu berezia ari gara egiten, hala nola Gizarte Zientzietan eta Irakasle Eskoletan, non gizarte zientzietako gaiak ere lantzen diren.

Artikulu luzeagoak egiteko aukera dago, historiak prosarako ohitura duelako, eta artikulurik laburrenak hedatzeko ez litzateke arazo berezirik egon beharko. Guztira 677.472 byte gehitu dira (bai, Matematikan baino gehiago), baina artikulurik luzeenak %22 baino ez dira hazi. Lehen Mundu Gerra artikuluan egondako gorakadan dago erantzuna.

Artikulurik irakurrienak

- 1 Lehen Mundu Gerra
- 2 Europar Batasuna
- 3 Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala
- 4 Bigarren Mundu Gerra
- 5 Energia berriztagarri
- 6 Frantziako Iraultza
- 7 Euskadi Ta Askatasuna
- 8 Industria Iraultza
- 9 Nafarroa Garaia
- 10 Txinako Herri Errepublika
- 11 Errusia
- 12 Espainiako Gerra Zibila
- 13 Japonia
- 14 Nazio Batuen Erakundea
- 15 Demokrazia

Kultura zientifikoa



Eremu hau da, dudarik gabe, gehien hazi dena. Jada ez dugu 2.000 bytetik beherako artikulurik, oso gutxi dira 5.000tik beherakoak eta nabarmenigo dira 50.000 bytetik gorakoak. Eragin zuzena izan du Astronomiari buruzko lehiaketa antolatu izanak, bestela nahiko korapilotsua delako gai hauek lantzea Unibertsitateetako ikasleekin.

Hala ere, izan dira artikulurik batzuk landu ditugunak, ingeniarietan, biologian edo fisikako ikasleekin, eta horrek ere bultzada ederra eman dio.


2019rako erronka izango da 5.000 bytetik beherako artikulurik desagertzea, eta oraindik gehiago egotea goiko grafikoaren eskumako aldean.

Programa hasi zenetik 1.311.451 byte idatzi dira eremu honetan eta artikulurik %360,35 hazi dira, inongo esparruan eman den hazkuntzarik handiena.

Artikulurik irakurriak

- 1 Eguzki-sistema
- 2 Eguzkia
- 3 Artizarra
- 4 Izar
- 5 Ilargia
- 6 Unibertsoa
- 7 Merkurio (planeta)
- 8 Marte
- 9 Planeta
- 10 Big Bang
- 11 Galaxia
- 12 Jupiter
- 13 Saturno
- 14 Satelite natural
- 15 Urano

Informazio teknologia



Esparru honetan artikulu gutxi daude, baina ondo garatu dira. Artikulu bakarra geratzen da egin gabe, eta bakarra dago 3.000 bytetik behera. 10.000tik gorako artikuluasko ditugu, baina ez dago bat ere 30.000 byte baino gehiago dituen.

Informatika Fakultatean egin dugu aurrerapena, baina baita ere Ingeniaritza ezberdinekin. Bertan dauden gaiak, hala ere, ez dira oso erakargarri informatikarientzat, eta zaila izaten da euren hartzea garatu ahal izateko.


Artikulu gutxi batzuk "artikulu on" gisa markatuta daude, eta aukerak egon daitezke hortik ere hazteko, egingo diren lehiaketekin.

153.156 byte baino ez dira idatzi, baina artikuluak %60,05 hazi dira. Artikulu gutxi izatearen ondorioa.

Artikularik irakurrienak

- 1 Wikipedia
- 2 Wiki
- 3 Sistema eragile
- 4 Software
- 5 Software libre
- 6 Hardware
- 7 Web nabigatzaile
- 8 Creative Commons
- 9 Copyright
- 10 Posta elektronikoa
- 11 Blog
- 12 Programazio-lengoaia
- 13 Wi-Fi
- 14 3D inprimaketa
- 15 Programazio

Hizkuntzak



Hizkuntzen eremua da gutxien mugitu denetako bat. Artikulu gutxi batzuk hazi dira, eta falta zirenak sortzen ere aritu gara, baina EHUko Letren Frakultatean kontakturik lortu ez izanak eragin zuzena izan du. Bertan Euskal Filologiako ikasleekin egindako lana da gorakadaren erantzule bakarra, baina euskararen historiako beste artikulu batzuk landu zituzten ez dutenak zer ikusirik gure programarekin. Wikilariak egindako "Euskararen jatorria" artikuluak, ordea, lagundu du emaitzak asko hobetzen.


Esparru zaila da, esan bezala. Praktiken eskaintza ere egin da, baina ez dugu lortu ikaslerik animatzea. 2019rako itzulpengintzako ikasleekin hainbat saio izango dira, eta espero dugu egoera nabarmen hobetzea.

152.809 byte gehitu dira eta artikuluak %29,18 hazi dira.

Artikularik irakurrienak

- 1 Euskara
- 2 Ingeles
- 3 Euskaltzaindia
- 4 Gaztelania
- 5 Euskalki
- 6 Euskara batua
- 7 Hizkuntza
- 8 Euskararen historia
- 9 Frantses
- 10 Euskararen jatorria
- 11 Euskal aditz
- 12 Ikastola
- 13 Adizlagun
- 14 Elbira Zipitria
- 15 Komunikazio

Emakumea eta generoa



Grafikak ez du ondo erakusten benetan gertatu dena eremu honetan. 70 artikulu egiteko helburua genuen, eta horietako gehienak, ia 50, egin gabe zeuden. Gaur egun 30etik behera falta dira egiteko, baina egin direnak nabarmen luzeak dira, baita 50.000 byte baino gehiago duten bi artikulu ere. Orokorrean, 10.000 bytetik gorako asko egin dira, eta kontuan hartu behar dugu ia zerotik abiatu ginela.


Ez dago fakultate zehatzik lan hau egiteko. Ikasle asko dauden gelatan eskaintzen zaie gai hauetako batzuk, bereziki emakumeek hartzen dituztenak. Oraindik funtsezkoak diren artikulu batzuk falta zaizkigu, hala ere.

290.462 byte idatzi dira eta artikuluak %255,6 hazi dira, bigarren hazkuntzarik handiena. Hala ere, artikuluen sorrerarekin bakarrik lan izugarria dago aurretik, eta emaitzak ikusgarriak izan daitezke 2019an.

Artikulu irakurrienak

- 1 Feminismo
- 2 Emakumeen aurkako indarkeria
- 3 Emakume
- 4 Homosexualitate
- 5 Emakumeen sufragismoa
- 6 Matxismo
- 7 Sexismo
- 8 Patriarkatu
- 9 Transexualismo
- 10 Emakumea Antzinako Erroman
- 11 Sexu-abusu
- 12 Genero (soziologia)
- 13 Emakumeak zientzian
- 14 Emakumeen eskubideak
- 15 Haurduntza subrogatu

Literatura



Literaturan aldaketarik nabarmenena Literatura Unibertsalaren eremuan eman da, Donostiako liburutegietan egindako lanari esker. Grafikoan ikusten denez, egiteke zeuden artikulua asko sortu dira, eta 5.000 bytetik beherako artikulua murriztu dira. Hazkuntzarik handiena 10.000 eta 30.000 byte artean dago, artikulua onak sortu diren eremua.


Hala ere, euskal literaturan berrikuntzak egingo ditugu aurten, eta grafiko hau guztiz aldatuko da. Letren Fakultatean ez dugu lortu literaturako irakaslerik proiektura igotzea eta, horregatik, zaila izango da esparru horiek betetzea, baina literatura, oro har, ondo lantzen den gaia da, eta wikilariek erraz betetzen dutena.

Bestetik, asko idaztea zaila den eremua ere bada, bereziki euskal idazleen kasuan ez dugulako hainbeste edukirik. Hala ere, 378.297 byte gehitu dira eta artikulua %42,18 hazi dira. Hurrengo urterako badugu nondik jarraitu.

Artikulu irakurrienak

- 1 Bertsolaritza
- 2 Euskal literatura
- 3 Linguae vasconum primitiae
- 4 Biblia
- 5 William Shakespeare
- 6 Virginia Woolf
- 7 Miguel de Cervantes
- 8 Bertsolari Txapelketa Nagusia
- 9 Leturiaren egunkari ezkutua
- 10 Ahozko euskal literatura
- 11 Olerkigintza
- 12 Gero (Axular)
- 13 Jules Verne
- 14 Odissea
- 15 Federico García Lorca

